

# noaua

**Enpresa eraikitzaileak  
uztailean amaitu beharko  
ditu Zumarte Musika  
Eskolako berritze-lanak**

**Ikastetxeetako ikasleek  
kantari hasiko dituzte  
neguko oporrak**



Argazkia: Emakume Master Cup

**Historia egin du Miriam Arrillagak**

**Pilota mixtoko lehen txapeldunari  
omenaldia egingo diote igandean Zubietan**

*gabonetako apaingarri eta dekorazioan aukera zabala!*

**URTINEA**

San Esteban Auzoa, Usurbil - Tel: 943 36 22 55

Noruegako Fiordoak  
(kruzeroa)

**BIDAIK TALDEAN**

**DENBORALDI AURRERAPENA**

Eslovenia & Istria

**NOAOA**  
BIDAIK

LASARTE ORIAK, NOAOAK GIDATUA

943 37 36 13 info@noaoa.eus noaoa.eus

**ANORGA TXIKI S.L**  
KRISTALDEGIA

Beirazko itxitura sistema berria!!!  
perfil bertikalik gabe!!  
zure balkoia itxi nahi baduzu galdeiguzu!  
aukera zabalak!

Beirazko itxitura  
**seeglassone**  
perfil bertikalik gabe

komertzial instalazioak · beira bikoitza · segurtasun beirak dutxa-itxiturak eta irristailuak  
· ispiuak · barandak · kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

## Albistearen iruditan

# Txikizioak haizeteen eraginez

**A**benduaren 13an izandako haize bolada gogorrek hainbat zuhaitz botarazi zituzten, Aginaga Sagardotegi atariko aparkalekuan, Atxegaldeko Alperro-buru kalean... Erreka-txikiko biribilguneko bi poste bota zituen haizeak. Frontoiko euri-urak jaisteko hodietako bat ere askatu zuen. Egun hartan udaltzainak eta brigadako langileak kalteen informazioa batzen aritu ziren. Aste hasieran, kalteen balorazioa egiteko larrialdi mahaia biltzekoa zen, Udaletik berri eman dutenez. Argazkiaren egilea: Usurbilgo Udala.



Aginaga sagardotegi atariko aparkalekua kaltetu zuen haizeteak. Argazkia: Usurbilgo Udala.

## Laburrean

### Hurbilagoren jolas-parkea, abenduaren 27an eta 28an

Aurtengo gabonetan, herri merkataritza eta ostalaritza eremua jolas-parke erraldoian bilakatuko du Hurbilagok. Abenduaren 27an eta 28an Usurbilgo kaleetan hainbat atrakzioetan ibiltzeko aukera izango dute haur eta gazteek.

### Hurrengo NOAUA!, urtarrilaren 10ean

Eskuetan duzuen aldizkari, gabonetako gehigarri eta 2020ko egutegiarekin, bi asteko etenaldia dator orain. Hurrengo NOAUA! urtarrilaren 10ean. Zorion agur edo oharrik baldin baduzue hilaren 6a baino lehen helarazi.

### Odol ematea, urtarrilaren 13an

Hitzordua bi hilean behin, lehen astelehenean izaten da. Urtarrilekoa ordea, astebebe atzeratuko da. Lehen astelehena, hilak 6, jai denez, urtarrilaren 13an izango da odol ematea. 18:00-20:30 artean, ambulatorioan.

# noaúa

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 ||| elkarte@noaúa.eus ||| www.noaúa.eus

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:**

Idoia Torregarai.

**Aldizkari koordinatzailea:**

Imanol Ubeda.

**Idazkaria:** Aizpea Aizpurua.

**Disainu berria:** Erroitz S. L.

**Erredakzio kontseilua:**

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte,  
Itxaso Orbegozo.

**Publizitatea:** Beatriz Alda,  
publizitatea@noaúa.eus

**Banaketa:** Inaki Irazusta,

Iban Maritxalar.

**Tirada:** 2.930 ale.

**Lege-Gordailua:** SS-668-96

**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu  
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

**Harremanetarako:**  
erredakzioa@noaúa.eus



## Gipuzkoako Foru Aldundia



Itxaso Orbegozo

**G**abonak gainean ditugula eta, asko oporrak hartzeko gogo biziz egongo dira. Izugarri gogoko dut urte sasoi hau, goiz ilundu arren kaleak argiz jantzita egoten dira eta gainontzeko pertsonen sortzen dituzten bibrazio horiek ere zein desberdinak diren. Hala ere, gabon gaua heldu arte zail egiten da mentalki gabonak direla sinestea. Duela bi hilabetetatik supermerkatu handiak turroi eta polboroz beteta daude, eta jada nazkatu ere egin gara gabonetako zuhaitzak dendetan salgai ikusteaz. Behin uda pasatuta, Halloweeneko kalabazak ateratzen dituzte, eta hortik aurrera gabonetako apaingarriak ia otsailera arte.

Usurbilen aurreko astean jarri zituzten gabonetako argiak eta egun berezi hauetarako denetariko apaingarriak dela Olentzero, dela Hurbilagoren

txokoan jarritako etxetoak. Donostian, ordea, hilabete bada gutxienez hiria argiz beteta dagoela. Bi aste seinalatuak iristerako erabat aspertuta gauzkate. Estatu Batuetan gabonak ospatzen gu baino askoz ere lehenago hasten dira, ia hilaren hasierarekin *Thanks Giving* delakoarekin eta. Kasu horretan zentzuzkoagoa iruditzen zait kaleak eta dendak lehenago janzen hastea, baina gurean ez du inolako zentzurik. Indioilar handi horiek labean egitea baino ez zaigu falta, eta edateko pontxe beroa edalontzi gorrian. Estatu Batuei men egiten horrenbesteko lanak hartzen ditugu, ezen urte gutxitan Olentzero eta Maridomingiz gain, Santa Klaus agertzea ere ez ninduke harrituko.

Gure-gureak ditugun jaiak baditugu egun hauetan, San Tomas esaterako. Usurbilen igandean ospatu zen, baina egun ofizia-

la larunbatekoa da. Donostiako kaleak jendez betetzen dira egun horretan, tabernaz betetako kaleetan aurrera zein atzera egin ezinean ibili behar izaten dugu. Bataz besteko bat esatea zaila bada ere, taloa eta sagardoa eskuan hartuta, kaleetan ibiltzen direnen erdiek ere ez dute base-rritar jantzirik eramaten soinean. Asko jota txapela eta blusa. Erabat "euskaldunak" asko eta asko, bertako garai bateko jantziak jantzeak lotsa ematen dietenak. Hori bai, Halloweenen gezurrezko letaginak jarri eta aurpegia bel-durrezko pertsonieiz margotuta eramateak inolako lotsarik ez die ematen. Laster *Thanks Giving* horrekin hasi baietz! Hemengo ohiturak jarraitzea lotsagarritzat duen gizarteari, zer eskatu da-kioko, bada?

Urte zahar gauean, nola ez, ditira faltarik ez duen jantziren bat eramango dute edo *traje* hortera

horietakoren bat, astebete lehenago erositako. Zenbait gehiago mozorrotzen da egun horretan inauterietan baino. Ustez oso elegante eta eder jarri ostean, 60-100 euro ordainduko dituzte diskotekaren batean izerdi patsetan eta kabitu ezinean egoteko. Batzuen inozokeriak ez du amaierarik.

Nik aukeran gure ohiturak nahiago: Halloweenen ordez, Arimen Gaua, San Tomasak garai bateko baserritar jantziekin eta urte zahar gaua herriko frontoian azken urteetan jantzi dudan arropa berdinarekin. Turroia probatu ere ez dut egiten Gabon Gauera arte, eta polboroi eta bonboiez zer esanik ez. Defenda dezagun gurea orain arte gure etxeetan egin den moduan egiten jarraitzeko, eta ez itsasoz bestalde dauden horien menpeko izateko.

Aroa Etxeburua Ugartemendia | Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | **Itxaso Orbegozo** | Luis Aranalde | Garazi Lizaso Manterola | Luken Arkarazo

## Trukea eta berrerabileraren plaza

**E**rosi, erabili eta bota eske- ma hautsi eta aipatu moduan, erabili, trukatu eta berrerabiltzera igarotzeko zubi lanak egiten ditu Hitz Ahok antolatutako jostailu erabilien azokak. Abenduaren 14an ospatu zuten frontoian, bezperatan Sutegin herritarrek utzitako jostailuekin. Azoka amaieran postuetan geratu zen materiala, "Ez itxi begiak" Trintxerpeko elkarte solidariora bideratuko du Hitz Ahok.



Azoka amaieran postuetan geratu zen materiala, "Ez itxi begiak" Trintxerpeko elkarte solidariora bideratuko du Hitz Ahok.

## Urteko azken plenoa ostegunean

Ohi baino astebete lehenago, ostegunean (abenduak 19) deitu dute hilabete honi dagokion udalbatzarrara 18:00etan. Gipuzkoako Haur eta Gazteen Sustapenerako Erakundearteko Sarearen, Gaztematikaren atxikimendua eta Atsokabar eremuari lotutako hirigintza gai bat hartuko du ahotan udalbatzak.

## Komikia



TOKIKOMeko hainbat hedabidek sustaturiko tira komikoa.

# Udal tramiteak saretik ere egin ahal izango dira aurrerantzean

Ordainagiriak ikusi eta ordaindu (ur, zabor edo autoko bineten ordainagiriak, isunak... Kiroldegiko ordainketak izan ezik), edozein motatako eskaerak bideratu, udal errolda kontsultatu, tasak eta zergak kontsultatu edota ordaindu, isunak ordaindu edota dokumentuak egiaztatu eta kontsultatzeko aukera eskaintzen du Usurbilgo Udalaren usurbil.eus atariko “zerbitzu digitalak” atalak.

Udalak ohartarazi duenez, “tramite horiek guztiak egin ahal izateko “B@kQ” izeneko ziurtagiri digitala edukitzea ezinbestekoa da: edozein administrazio publikoetan eska daiteke, doan”. Usurbilen, udal txeko harreran edo KzGunean. “NAa aurkeztu behar da horretarako, eta kontratutxo bat sinatu, udal langileek beha-



Usurbilgo Udalaren usurbil.eus web orrialdeko “zerbitzu digitalak” ataria baliatu dute propio horretarako.

## UDALAREN OHARRA

**“Tramite digitalak egin ahal izateko “B@kQ” ziurtagiria edukitzea ezinbestekoa da”**

rezko diren tramiteak egin ahal izateko.

Oraingoz, mugatua da egin daitezkeen tramiteen kopurua, baina pixkanaka horri buelta

ematea da Usurbilgo Udalaren asmoa”.

## Adi udal diru-laguntzen deialdiari

Udaletik aditzera eman duteenez, deialdi honetara eskabideak aurkezteko epea lehenago zabalduko da 2020an. Aurreko urteetan otsaila erdialdera irekitzen zuten udal diru-laguntzeta aurkezteko epea, oraingoa

ordea urtarrileko lehen asteetara aurreratu asmo dute, “prozedura guztia aurreratu, elkar- teek diru-laguntzak lehenago jasotzeko”. Eskabideak aurkezteko epea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO) argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita 20 egun balioduneko epea izango dute interesdunek norgehiagoka erregimeneko diru-laguntza deialdiko eskabideak (gizarte ongizatekoak, ingurumenekoak, kiroltakoak, kulturakoak, nekazaritza eta abeltzaintzakoak), deserrotze eta baztertze sozialeko arriskuan dauden pertsonentzakoak edo igogailuak instalatzekoak bideratzeko. Aldiz, irailaren 30era arteko epea zabalduko da, lokal hutsak biziberritzeko, norgehiagoka erregimenekoak ez diren kirol arloko laguntza eta Kabieneren Hasiz Hazi beka deialdietan parte hartzeko.

## Ika-mika

# Lizentziarik gabeko angula-zaleen adierazpena

Lehenik eta behin, angularen iraupenaren alde gaudela argi eta garbi utzi nahi dugu, behar diren neurriak hartzeko prest gaude. Horregatik, Europatik hartzen dituzten neurriekin bat gatoz, baina Diputaziotik lizentziak nola banatzen edo mantentzen diren ez gatoz bat.

Badira hamar urte edo ez dituztela lizentzia berririk eman angula arrantzatzeko. Lizentzia lehendik zutenek dute bakarrik lizentzia urtero berritzeko aukera. Angularen arrantza praktikatu ahal izateko beharrezkoa da lizen-

tzia pertsonal eta besterezina edukitzea. Gune mugatu batean bakarrik baimentzen du arrantzaren jarduera. Aurreko denboraldiko lizentzia aurkeztu ez badute, dagokion isuna jarriko zaie eta gainera lizentzia ez da berrituko. Bi lizentzia mota daude, lehorretik eta itsasontzitik. Lizentzia eta egun bakoitzeko gehien- ez bi kilo arrantza daitezke, baina hau dena talde mugatu batzuen esku bakarrik dago, eta beraz, ez dugu arrantza egiteko aukerarik.

Diputazioko arduradunarekin hitz egin dugu behin baino gehiagotan gure kexa

elkarbanatuz lizentziak berritze- zeko garaian eta guri ulertaraziz arrazoia dugula. Usurbilgo alkatearekin bildu ginen orain dela sei urte edo eta berarekin elkartu zenean ere onartu zion arrazoia genuela baina urteak joan... urteak etorri ... berdin jarraitzen du.

Azken urteetan Usurbilgo udaletxetik deitu diote behin baino gehiagotan gai honetaz hitz egiteko eta ez du kasurik egiten. Honen aurrean, gure kezka azaldu nahi dugu eta bere jokabidea salatu. Horretarako pentsatzen dugu lizentziak nola banatzen diren aldatzeko garaia dela, eta beraz,

angula arrantzatzeko zerrenda irekia izatea eskatzen dugu. Urtero zozketa bidez baimenak banatuz edo beste modu batez, baina denok aukera izan dezagun lizentzia izatekoa. Denok eskubide berdina dugulako eta sistema hau arbitrarioa ikusten dugulako, ibai bazterren zaintza gogortu baitu.

Besterik gabe, pertsona arduradunari bere kompetentziak bete ditzen eskatzen diogu eta gure herriko ohitura errespetatu dezan legeak berritzea.

**Lizentziarik gabeko angula-zaleak.**

# Agurtzane Solaberrieta: “Legealdi hasiera oso intentsoa izaten ari da”

**A**gurtzane Solaberrieta alkateak gidatzen duen udal gobernu taldeak sei hilabete egin ditu agintean. 2020ko udal aurrekontuak bideratu berritan, pil-pilean diren kontuez galdezka hurbildu gara udaletxera.

**NOAUA! Udal gobernu berriak sei hilabete egin ditu agintean. Hautatuak izan zineten askok ez zenuten esperientziarik horrelako karguetan. Nolako izan da egokitzapen fasea?**

**Agurtzane Solaberrieta:** Abiadura handian doan tren batera igotzea bezalakoa izan da. Hasi berriak izanagatik ere, trenak ez du geldiunerik, eta, beraz, ezin diozu trenari ihes egiten utzi. Oso intentsoa izaten ari da baina, aldi berean, oso aberasgarria. Ikasbide bat. Bizi-esperientzia berri eta emankorra.

**Kargu-hartze ekitaldia giro onean joan zen. Lanean hasi ahala, ez dakigu hoztu edo**



Elkarrizketa udaletzeko pleno aretoan egin genuen. Pasarte esanguratsuenak ekarri ditugu orriotara. Solasaldi osoa [noaia.eus/bideoak/](http://noaia.eus/bideoak/) web helbidean topatuko duzue.

## AGURTZANE SOLABERRIETA

**“Interes alderdikoiak baztertu eta herri-interesei begira aritzea ezinbestekoa da. Bai oposizioarekin, bai herritar guztiekin. Herrigintza, azken batean”**

**aldatu egin ote diren gauzak. Egunerokotasunean, nolakoak dira alderdi ezberdinen arteko**

## hartuemanak?

**A. S.** Zinegotzior arteko harremana ona da, baita alderdien arteko harremana ere, hainbat gaitan desadostasunak izan arren. Ezin du bestela izan. Alkate kargua hartu nuenean esandakoan berresten naiz: herritarrek Udala kudeatzeko ardura berriro ere EHBilduren esku utzi badute ere, Usurbil ez da EHBildu, udalbatzaren

osaketak erakusten duen bezala. Gure herria anitza da, sentimendu politikoz anitza.

Eta aniztasun horrek ezinbestekoak egiten ditu ezberdinen arteko akordioak, adostasunak, elkarguneak, aliantzak. Interes alderdikoiak baztertu eta herri-interesei begira aritzea ezinbestekoa da. Bai oposizioarekin, bai herritar guztiekin. Herrigintza, azken batean.

## “Tokiko merkataritza herri bizien berme da”

**NOAUA! Hurbilagok herri merkataritza sustatzeko lanean dihardu. Era berean, Urbilek bere merkataritzagunea handitzeko egitasmoari eusten dio. Zertan dira gauzak?**

**Agurtzane Solaberrieta:** Bere garaian Urbilek handitzeko asmo bat azaldu zuen. Proiektu bat ere landua du, baina esan behar da udalean ez dutela inoiz eskaera ofizialik aurkeztu (...).

Hala ere, gu kezkatuta gaude egoerarekin. Azken bolada honetan, maiz iristen zaizkigu merkataritzagune handiei buruzko albisteak. Donostialdea inguruan, Irundik Usurbilera arteko lur-eremuan,

200.000 metro koadro gehiago okupatuko lirateke jarduera komertzialetarako. Horrek izugarriko desegonkortasuna ekarriko dio sektoreari, eta ondorio konponezina gure herrietako komertzio eta denda txikiei. Horregatik, ezinbestekoa da Jaurlaritzak esku hartzea eta egoera arautzea, berandu izan baino lehen.

Horretaz gainera, merkataritza elektronikoaren gaia hor dago. Bistan da azken urteotan izugarri aldatu direla gure erosteko ohiturak.

Testuinguru honetan, inoiz baino beharrezkoagoa da merkataritza-, kontsumo- eta

bizi-ohiturak zaintzea, eta gure herriko izaera, erro sakanak dituen, babestea. Herri biziak nahi ditugu, eta tokiko merkataritza herri bizien berme da. Eta, beraz, ez dut dudarik herri-merkataritza bezekiki zaindu beharreko sektorea dela eta hori sustatzeko neurriak behar direla.

Alabaina, ez da aski esatearekin. Egin, egin behar da. Eta horretan gaude, buru-belarri. Herri-merkataritza eta ostalaritza biziberritzeko plana eguneratzeko zereginari heldu berri diogu. Hurrengo urteetarako ildo-estrategikoak, helburuak, egitekoak eta fi-

nantziarioa zehaztuko dituen plana, hain zuzen ere. Iparra argi izateko baina, aurrez informazioa behar da. Egoeraren gaineko azterketa zehatza behar da, eta, horretan ari da Siadeco egunotan, Udalaren eskariz. Izan ere, ezinbestekoa da jakitea gai izango ote den Usurbilgo merkataritza-sektorea tokiko merkataritzak dituen erronka berriei erantzuteko. Toki gutxitan egin da halako azterketa soziodemografikorik, eta, zentzu horretan, aukera hau baliatu nahi dut Siadecori eskertzeko Usurbilekin duen konpromisoa eta inizatiba.

## “Oposizioaren ekarpenak jasotzeko ahalegina egin dugu”

**NOAUA! Udal aurrekontuekin okupatu samar ibili zarete azken hilabeteotan, ezta?**

**Agurtzane Solaberrieta:** Azaroko osoko bilkuran onartu genituen, EHBilduko udal-gobernuaren aldeko botoekin. EAJ eta PSE abstenitu egin ziren. PSEren jarrerak ez gintuen harritu, aurrez zinegotziarekin izandako bileran aurreratu zigulako bere bozka, nahiz eta aurrekontuak, oro har, begi onez ikusi. Haatik, EAJren jarrerak tristatu egin nau, eta, aitortu behar dut mindu ere, abstentzioa justifikatzeko erabili zituzten argudioak entzunda. Justifika ezina zena nolabait justifikatu behar zuten.

Aurrekontu-zirriborroa aurkeztu genuenean argi adierazi genuen ekarpenetara irekita zegoen dokumentu bizi bat genuela esku artean, eta ahalegina egingo genuela oposizioaren ekarpenak jasotzeko. Herritarrenak biltzeko auzoz auzo ibili gara.

EAJk hiru proposamen egin



EAJ eta PSE-EE abstenitu egin ziren udal aurrekontuak bozkatu zirenean.

### UDAL AURREKONTUAK

**“Legealdia adostasun handiak lortuz has gintezkeen, Usurbilen mesedetan. Aukera galdua izan da”**

zituen, eta hirurak txertatu ditugu 2020ko aurrekontu-proiektuan.

Lehenengoa, Txikiardi eta herri sarrera lotuko dituen bidegorri proiektu bat idaztea (60.000 euro); bigarrena,

Etxealdia auzorako ordenazio berri bat lantzea (50.000 euro); eta, hirugarrena Memoria eta Bizikidetzaren arlorako 15.000 euro bideratzea.

Pena dut. Legealdia adostasun handiak lortuz has gintezkeen, Usurbilen mesedetan. Bistan da EAJ, oraindik bederen, ez dago horretan. Alderdi-interesak lehenetsi ditu, herri-interesen aurretik. Badirudi beldur diela herri adostasunei. Penaz diot: aukera galdua izan da.

**Alderdi guztiak Xuaren inguruko mozioan erakutsitako “eskuzabaltasuna txalotu nahi dut”**

Udal aurrekontuen inguruan akordiorik lortu ez bada ere, harmonia onean jardun dute lehen sei hilabeteotan. Denbora labur honetan, “bestelako adostasun batzuk izan ditugu”, alkateak nabarmendu nahi izan duenez. “Bat nabarmendu nahiko nuke: Xua gurasoekin etxera herri-plataformak aurkeztutako mozioa aho batez onartu genuen, eta, alderdi guztien aldetik egon zen ahalegina eta eskuzabaltasuna txalotu nahi dut”.

**“Usurbil guztiona da eta guztiontzat izan behar du”**

Aurrera begira “adostasun gehiagotara iristeko gai izango garela espero dut”, aitortu digu alkateak. “Guk bide horretan sakonduko dugu, esan bezala, alianztak eta adostasunak erai-kiz. Usurbil guztiona da, eta guztiontzat izan behar du”.

## “Osasunak, ingurumenak kezkatzen gaitu”

**NOAUA! Errauste-planta probaldi fasean da. Laster jarriko dute martxan. Eta orain zer?**

**Agurtzane Solaberrieta:** Kezka handia dugu. Kezka, ezinegona eta haserrea. Egunero ikusten ditugun ke zutabe erraldoiek kezkatzen gaituzte. Ez da kutsadura gaietan aditua izan behar jakiteko hortik ez dela ezer onik aterako. Osasunak, ingurumenak kezkatzen gaitu, gure ondorengoei utziko diegun planetak. Kezka horretatik abiatuta deitu dugu manifestazioa (abendua 13ko manifestazioa baino lehen egin dago elkarrizketa).

**Anerreka Ingurumen Elkar-teak hauxe zioen NOAUA!n argitara eman zuen idatzian: “Astero salatzen ari gara (Ucineko) itxi gabeko teilatutik, inongo tratamendu eta kontrolik gabe, ateratzen diren fundizio keak. Nahiz eta 2018an Udalak emandako obra baimenean ezarri isurketa gune hori itxi behar zela, gaur egun aginduaren kontra, itxi gabe jarraitzen du”. Hau hala al da?**

**A. S.** Gai hauetan ez naiz aditua, gauzak diren bezala. Baina gaiaren jarraipena egiten ari naiz eta Ucinoko nagusiekin hainbat hartueman

izan ditut. Beraiek diotenez, enpresaren jarduerak leherketa arrisku bat eragiten du eta, kasu horretan, teilatuak ezin duela itxita egon. Une honetan gai hau lantzen ari gara. Era berean, Ucineko eta beste enpresa kutsatzaileek neurriak hartu behar dituzte ke isuriak eta kutsadura murrizteko. Borondate hori izan ezean, pareta baten kontra aritzea litzateke.

**Borondate falta sumatzen al duzu?**

Ez, baina ez dira nahiko genukeen erritmoan ari. Enpresak hainbat neurri har-

tu ditu bere instalazioak modernizatzeko eta ke isuriak murrizteko, baina garbi dago ez dela nahikoa. Edonola ere, presiotik bakarrik nekez lortuko ditugu neurri eraginkorrak. Udal gobernuaren asmoa da enpresa, instituzio eta herritarrekin batera elkarlanean aritzea.

Bestetik, ez dezagun ahaztu ingurumen konpetentzia Eusko Jaurilaritzarena dela, ez Udalarena. Hala ere, Udalak bere kabuz ikerketa lerro bat zabaldu du egoera zein den ikusi eta horren arabera zein neurri hartu behar diren jakiteko.

# “Zumarteko obrek uztailaren 17rako amaituta egon behar dute”

**NOAUA! Musika Eskola berre-raikitze lanak uste baino gehiago luzatu dira. Ikasleak eta irakasleak, noiz itzuliko dira Zumartera?**

**Agurtzane Solaberrieta:** Obra hau nahi baino gehiago ari da atzeratzen. Pentsa, abuztuan amaituta egon behar zuen. Aldiz, obra hasi eta berehala sortu ziren desadostasunak kontratista, enpresa eraikitzailea, obra zuzendaritza eta Udalaren artean. Halaber, egia da obra zaila eta konplexua dela, birgaitze bat den aldetik, eta halako obretan bertan izan arte, ez da jakiten zein den eraikinaren egoera zehatza. Horregatik, proiektuan aurreikusitako lan berriak egin behar izan dira eta horrek prezio berriak sortzea eragin du. Edonola ere, prezio horiei dagokionez, oso ikuspegi ezberdinak egon dira eta askotan blokeoak ere eragin ditu. Obra atzerapena zerk eragin duen eta noren ardura ote den ere muturreko errelatoak zeuden eta atzerapen horregatik kalte-ordainak eskatzeko aukera ez genuen baztertzen, ez guk ez Moyuak. Epaitegietako bidea hartzea ere ez zen baztertzen, horrek suposa zezakeen



“Zaila zegoen gaia baina norabide onean jartzea lortu dugulakoan nago”.

## AKORDIOA MOYUAREKIN

**“Gure helburua beti izan da datorren ikasturtea han hastea eta lortu dugu”**

guztiarekin. Beraz, oso momentu kritikoa hartu genuen obra, ez aurrera ez atzera, urtebeteko atzerapenarekin eta ataka zail horretatik ateratzeko bideari ekin genion. Ahal zela, epaitegietako bidea baztertu, eta obrak martxa onean jarriko zuten akordio bat proposatu genion Moyuari. Ulertzen genuen akordio horrek honako

hiru gai hauek barnebildu behar zituela: obrak amaitzeko epea; atzerapenak eragindako kalte-ordainak; eta, muga ekonomikoa. Hala, horren bueltan negoziazioak hasi genituen, eta esan behar dut duela gutxi itxi dugula akordioa. Horren arabera, prezio itxi bat adostu dugu eta obrek uztailaren 17rako amaituta egon behar dute. Gure helburua beti izan da datorren ikasturtea han hastea eta lortu dugu. Pozik nago lortutakoarekin. Zaila zegoen gaia baina norabide onean jartzea lortu dugulakoan nago. Beti herri-interesei eta interes orokorrari begira aritu gara.

## “Ez da Txikierrdik beharko lukeen soluzioa”

**NOAUA! Txikierrdin, semaforo bat ipini berri dute Troia parean. Dena den, arazoa askoz konplexuagoa da. Hau konpontzeko egitasmorik ba al du udalaxeak?**

**Agurtzane Solaberrieta:** Pasa den legealdian proiektu bat landu zuen Eusko Trenbide Sareak (ETS), Udalarekin elkarlanean, eta soluzio integrala ematen zion tren-pasabideari eta errepideari; Troia eta Ugaldea bidegorri batez lotuz. Herritarrentzat segurua eta irisgarria.

Aldiz, Gipuzkoako Foru Aldundiak atzera bota zuen, kostu handiegia zuelakoan, eta erakunde bakoitzak bere aldetik eman dio soluzioa bere zatiari: ETSk barrerak jarri ditu eta Diputazioak semaforoa eta zebrabidea jarri du errepidean. Aipatu behar dut obrak hasi zituztela Udalari ezer jakinarazi gabe, eta gurekin harremanetan jarri gabe.

Zerbait da, baina ez dugu uste hori denik puntu arriskutsu horrek beharko lukeen soluzioa.

# “Oiarde kiroldegiko gradak berrituko ditugu”

**NOAUA! Oiarde kiroldegian hainbat inbertsio egin dira azken urteotan. 2020ko udal aurrekontu proposamenean ere, beste inbertsio bat aurreikusituzue. Zertan datza?**

**Agurtzane Solaberrieta:** Horretan jarraitzen dugu. Aurreko legealdian inbertsio garrantzitsua egin zen: igerileku txikia handitu eta irisgarri jarri da,

ezinbesteko obra inklusioaren norabidean eta usurbildarrei kalitatezko zerbitzua eskaintzeko. Une honetan ere kanpoko futbol zelaiko zorua aldatzeko lanak daude martxan, eta, datorren urtean eskubaloi zelaiko gradak berrituko ditugu. Kiroldegia ireki zirenekoak dira eta berritu beharra daude.



“Gradak kiroldegia ireki zirenekoak dira eta berritu beharra daude”. Argazkia Pirritx, Porrotx eta Marimototsen jaialdian atera genuen.



# Troia ingurua, pasabide seguruagorako egokitzen

U surbil seguruago eta jasangarriagoaren alde lan egiteko 2018ko martxoan jendaurrean aurkeztu zuten “Puntu beltzik ez” herri plataformak herritarren segurtasunerako gune arriskutsu bezala identifikatua zuen Troiako pasabidean hobekuntza lanak egiten dabilta asteotan.

Ikusiko zenuten egunotan. Pasabide seguruagoa izateko egokitzen ari dira; oinezkoentzako semaforo bana jarri dute N-634 errepidearen albo bana-



Oinezkoentzako semaforo bat ipini dute Troia parean.

tan, ibilgailuek zonalde honetan mantsoago igarotzeko 50 kilometro ordutik gorako abiatan gidatzea debekatu dute.

## 87 udalerrri izatera igaro da UEMA



Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateko (UEMA) Batzar Nagusia Usurbilen egin zen aurreko larunbatean.

U surbilgo herria ere kide duen Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA) batzar nagusia ospatu zuen abenduaren 14an Sutegin. Alkizarekin, 87 udalerrri eta 250.000 biztanlekuko lurgune euskalduna izatera igaro da UEMA. Alkiza UEMAn txertatzeko eskaera onartzeaz gain, urte amaierako balantzea egin zuen mankomunitateak Sutegiko batzarrean.

### Udaleku ibiltarietarako lan eskaintza

2020ko ekainaren 29an Zumaian hasi eta uztailaren 5ean Lekeition amaituko diren “Pauso eta salto” udaleku ibiltariak antolatzen ari da UEMA, sukaldariak eta aisialdiko begiraleak behar dituzte. Lan deialdi honekiko interesa dutenek, 14-18 urte arteko gazteekin lan egin beharko dute. Interesdunek

otsailaren 14a baino lehen helarazi behar dute kurrikuluma hezkuntza@uema.eus helbidera. Ondorengo jakintzak baloratuko dira: begirale titulua izatea; EGA edo bere baliokidea izatea; hezkuntzarekin zerikusia duten ikasketak izatea edo burutzen egotea; lan eskarmentua antzeko lanetan; euskararekiko sentsibilizazioa; taldean lan egiteko erraztasuna.

### Greba batzordea osatzeko deia

Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartako eragileek urtarrilaren 30erako iragarri duten greba orokorren harira, Usurbilgo greba batzordea osatzeko deialdia egin dute. Lehen bilera ostiral honetarako deitu dute, abenduaren 20an, 18:30ean Potxoenean. “Usurbildarrok antolatu eta bizitza duinen alde borrokatzeko lehen batzar irekia” izango dela iragarri dute. Bizi, lan eta pentsio duinen aldekoa izango da urte berriko greba orokorra.

### Langabezia beherantz

Urrian baino 10 lagun gutxiago, 220 zenbatu zituen Estatuko Enplegu Zerbitzuak azaroan Usurbilen; 82 gizonezko eta 138 emakumezko. 173 zerbitzuen sektorean. Usurbilen bezala, Buruntzaldean 50 langabetu gutxiago (2.864) eta Gipuzkoan 251 langabetu gutxiago (30.014) zenbatu ziren. Kontratazioa 430etik 364ra jaitsi da urritik aurrera udalerrri honetan. Ia kontratu denak, 346, aldi baterako hitzartu ziren; 195 gizonezkoenak, 169 emakumezkoenak. 296 zerbitzuen sektorean.

### Aldaketak Udaltzaingoan

Gasteizko Legebiltzarrak onarturiko Euskal Poliziari lotutako legedi berriak Usurbilgo udaltzaingoaren antolaketaren araudia aldatu beharra ekarri du. Honenbestez, udaltzainburua, lehen agentea eta udaltzainak, hurrenkera horretan geratuko da antolatua udaltzaingoa.

# Xua gurasoekin etxeratzeko aldarriak, Batzar Nagusien gehiengo osoaren babes

**B**abes zabala jaso zuen, Xua Gurasoekin Etxera plataformak eta Sarek astelehen goizean Gipuzkoako Batzar Nagusietan egindako agerraldiak. Haien eskaerekin bat egin zuten EHBilduk, EAJ-k, PSE-k eta Elkarrekin Gipuzkoak. Denek, PP-k izan ezik.

Xuak urtarrilaren 19an 3 urte betetzean legediak hala aginduta espetxetik irten beharko du, gurasoengandik bereiziko dute. Une horretatik aurrera, eta espetxe zigorraren hiru laurdenak beteak dituztenez, jada baldintzapean aske behar zuten gurasoak bisitatu ahal izateko “1.100 kilometroko bidaia egin beharko du Xuak”, Sareko bozeramaile Inaxio Oiarzabalek azaldu zuenez.

105 motxiladun haur daude guztira, 42 Gipuzkoan. “Zergatik egin behar dituzte hainbeste kilometro?” galdetu zuten Oiarzabalek. “Erantzun bakarra datorkigu, mendekua”. Duela bi urte gai hau plazaratzen hasi zirenetik, “orain badakigu bizi duten sufrimenduak zer nolako arazo eta hutsuneak uzten dituen”.

Egoera honetan, espetxe politika aldatzeko azken urteotan eremu sindikal, sozial edota politikoa saretzen joandako adostasun zabaletan sakontzea galdegin zuen.

## **EHBildu: “Sufrimendua saihesterik badago”**

Urtarrilaren 19an Xuak 3 urte betetzean izango den bereizketa, “apurketa mingarria izango da. Sufrimendua saihesterik badagoela uste dugu, legeak hala finkatzen duelako, ez gabilta ezer asmatzen”, zioen Aitor Arantzabalek. Olatz Lasagabasterrek eta Patxi Urangak 12 urteko espetxe zigorretik 10, hiru



Xua Gurasoekin Etxera plataforma eta Sare elkartea Gipuzkoako Batzar Nagusietan izan ziren astelehen goizean.

## **BABES ZABALA**

### ***EHBilduk, EAJ-k, PSE-k eta Elkarrekin Gipuzkoak ‘Xua Gurasoekin etxera’ taldearen eskaerekin bat egin zuten***

laurdenak beteak dituztela gogorarazi zuen, “kalerako bide hori garatu daitekeela dio legeak”.

Animu mezua helaraztearekin batera, “Xua gurasoengandik gutxienez ahalik eta gertuen egotea nahi genuke, urrunketarik ez egotea eta familiaren batasun hori mantentzea”. Argi adierazi zuen, “espetxe politika berri bat behar dugu, egungoa mendekuan eta salbuespenezko arautegi batean oinarritua dago. Adiskidetzera heltzeko oztopo nabarmena da”.

### **EAJ: “Kausa justu baten alde ari zarete”**

Ianko Gamboa EAJ-ko kidearen esanetan, “justiziaz eta gizatasunez jokatu behar dugula uste dut”. Bere esanetan, “ondo ikusiko genuke legedia arrunta aplikatzea”, zuzenbide penalak mendekuarengatik ez lukeela zigortu behar gogorarazita.

Horrekin batera zioenez, kasu honetan bada kontuan hartzeko beste alderdi bat ere. “Adin txikikoaren interes hoberena defendatzearen printzipioa, Xuaren interesak

defendatzea alegia”. Olatzi eta Patxiri baldintzapeko askatasuna aplikatzearen alde agertu zen, “familia honi aukera emateko, bizitza berri bat hasi dezaten”. Desio argi bat adierazi zuen; “ez dezagun ekidin daitezkeen sufrimendu berriak sortzen utzi”. Albiste pozgarritzat jo zuen, “adiskidetze sozialaren eta herri honen bake bidean”, Usurbilgo eta Orioko udalek urria amaieran onarturiko mozioak.

### **Elkarrekin Gipuzkoa: “Adin txikikoaren interesa lehenetsi behar da”**

“Gure babes eta esker ona adierazten dizuegu bihotz bihotzez”, adierazi zuen Elkarrekin Gipuzkoa taldeko batzarkide Marivi Eizagirrek. “Ama gisa, egoerarekin enpatizatzen dut eta bereizketa horren mina ulertzen dut”. Are gehiago, haurrak hiru urte dituela jakinda. Eizagirreraren esanetan, “gure hazkuntzan, egoki garatzeko denok gurasoengandik gertu egon behar dugu. 3 urterekin haur bat ez dago garatua, ez du ezer ulertzen...”

Olatzek eta Patxik espetxe zigorraren hiru laurdenak beteak izanda, “adin txikikoaren interesa lehenetsi behar da. Horrek justifikatuko luke denak Usurbilgo eta Orioko udalek urria amaieran onarturiko mozioekin bat egin zuten Marañonek, “orain ez dugu ezberdin jokatu Batzar Nagusietan”. Onarturiko mozioko “garrantzitsuen dena, 3 urteko hauraren aldeko interesen alde egitea lortu genuen adostasunez. Hori lehenetsi behar dugu guztiaren gainetik”.

### **PSE: “Legediak errealitate berrietara egokitu behar du”**

“Animoak eman nahi dizkiogu amona Mari Karmeni, eta aurrera!” adierazi zion Xuaren amonari PSEko batzarkide Arritxu Marañonek. Zorionez garaiak aldatu direla gogorarazi zuen eta “legediak errealitate berrietara egokitu behar du”. Bere esanetan, ez luke eragozpenik egon behar, “urrunketarik egon ez, familia batasuna lehenetsi eta ume horrek erosotasun eta aukera onenak izateko”.

Usurbilgo eta Orioko Udalek urria amaierako udalbatzarretan onartutako moziokoekin bat egin zuten Marañonek, “orain ez dugu ezberdin jokatu Batzar Nagusietan”. Onarturiko mozioko “garrantzitsuen dena, 3 urteko hauraren aldeko interesen alde egitea lortu genuen adostasunez. Hori lehenetsi behar dugu guztiaren gainetik”.

### **PP: “Mina denok bizi izan dugu”**

Xua Gurasoekin Etxera herri ekimeneko eskaeren aurrean kritikiko edo desados agertu den bakarra izan zen PP. “Bere printzipio biolentoei eta barkamena eskatu ez duen banda armatu bateko kide batek zergatik izan behar ditu espetxe onurak? Zergatik izan behar du gizarteak eskuzabaltasun hori?”, galdetu zuten Juan Carlos Canok.

1995etik PP-ko kargudun publiko gisa bizitzea egokitu zitzaiona ekarri zuen gogora. “Mina denok bizi izan dugu”. Gizarte honek adiskidetzera behar duela ulertzen duela zioen Canok, baina ulertezina deritzo alabagatik, “borroka armatuari uko egin eta barkamena eskatzeko sakrifizioa ez egitea”. Bere esanetan, “hori ez badute egiten, zer nolako adiskidetzear eta birgizarteratzeaz ari gara?”.

# Mari Karmen Anza: “Min eta sufrimendu hau guztia saihestu daitekeela uste dut”

Bizi duten egoera bidegabearen lekukotza helarazi zien Xuaren amona Mari Karmen Anzak Gipuzkoako Batzar Nagusietako talde politikoei, astelehenean egin zuten agerraldian. Iragarri zuenez gainera, Arartekoak egindako proposamenari jarraiki, Olatzek eta Patxik “Zaballara (Araba) espetxez aldatzea eskatu dute”.

## Mari Karmen Anzaren lekukotza

“Haurra pixkanaka espetxetik ateratzen saiatzen hasi ginen, lehen aldiz sei hilabete bete zituen. Pixkanaka bidea egiten joan gara, asteburu eta astetarte batzuetan kartzelatik ateratzen joan gara. Pisu bat alokatu genuen Almusafensen, espetxetik gertu, umearekin egon eta umea baldintza egokietan izateko.

Hobetzen goaz egunerokoan, ondo egokitzen doa, baina batzuetan amarekin edo aitarekin egotea eskatzen du. Amarekin



Batzar Nagusietako ordezkari politikoen aurrean jardun zuen astelehenean.

### MARI KARMEN ANZA

**“3 urte beteko ditu Xuak urtarrilaren 19an. Nirekin bizitzera etorriko da Usurbila. Gurasoengandik bereiztea oso gogorra izango da”**

24 orduz egoten da baina bere aitarekin ezin du egon. Aitarekin astero 80 minutuz egoten

da. Ordu eta erdiko bis familiar bat eta 4 orduko beste bat izaten dute hilero.

Umeak geroz eta gehiago botatzen du faltan aita, baina arauak hala dira. Halere ezin dut ulertu, hainbeste hitz egiten da gurasoak haurren hezkuntzan inplikatu behar direla...

3 urte beteko ditu (Xuak) urtarrilaren 19an. Nirekin bi-

zitzera etorriko da Usurbila. Gurasoengandik bereiztea oso gogorra izango da, baina egoera hala da eta hala onartu behar da. Halere min eta sufrimendu hau guztia saihestu daitekeela uste dut. Nik ez dut zalantzan jartzen beste pertsonen sufrimendua, baina gurea pixka bat kontuan hartzea gustatuko litzaidake. Batez ere haurrena. 3 urterekin ume bat gurasoengandik bereiztea eta umeak gero gurasoak ikusi ahal izateko ia 1.200 kilometroko joan etorria egin beharra, guztira 5 ordu eta erdi eta 40 minutuko bisitengatik... Ez nago ziur nola egingo dugun. Hilean behin egingo dugula pentsatzen dut, haurra txikia baita eta azken aldiak bidaiak zailak izaten ari dira, ez baitu kotxean sartu nahi. Ez du eserlekuan eseri eta lotzerik nahi. Azken aldiz hiru ordu laurden joan zen esanez “askatu!”, eserlekutik askatzeko eskatzen zigen. Gogorra da”.

## “Gure eskaera modu onean hartua izan da kontuan”

“Gure mezua entzuna izan da, gure ustean gainera modu onean kontuan hartua izan da”. Balorazio baikorra egin zuen Xua Gurasoekin Etxera herri plataformak, Gipuzkoako Batzar Nagusietan eginiko agerraldiaz. Hedabideei adierazpenok egin aurretik, Xua Gurasoekin Etxera herri ekimeneko ordezkari Aitor Landaluzek, Batzar Nagusietako bileran talde politikoei adierazi zenez, “gure herritik kanpora jotzen ari gara egoera hau aurkeztu eta atxikimenduak lortu nahian. Adierazi nahi dut jada pilo bat lortu ditugula. Are gehiago, esango nuke, inor ez



Aitor Landaluzek adierazpenak egin zituen agerraldiaren amaieran.

dela ausartu, kontrakorik esan edo zalantzan jartzera”.

Ildo horretatik zioenez, “eskertzekoa da hona etorri eta sintonia berdineko mezuak entzutea, pentsamendu ezberdinak ditugun pertsonengandik”.

### Abenduaren 28rako manifestazioa deitu dute

Xua Gurasoekin Etxera herri ekimeneko eskaerak Gipuzkoako Batzar Nagusien urtarrilaren 8ko osoko bilkurara eramango dituzte. “Gure eskaera bertan aurrera ateratzea

espero dugu”, adierazi zuen Landaluzek.

Horrekin batera abenduaren 28rako Donostian 12:00etan Bulebarrean antolatu duten manifestaziora joateko gonbita luzatu zuten. Horretara dator hilabete amaierako Donostiako manifestazioa. “Euskal Herriko 105 haur motxiladun haur eta gazteen alde eta beraiekin batera elkartuko gara. Eskertuko genuke manifestazio jendetsua izatea eta eskaera hau ere gure politikarien agendan garbi agertzea. Ahalik eta manifestazio koloretsu eta alaiena izango da”.

# Sasoian egoteko, euskara ahotan

## ESKUALDEKO KIROLDEGIETAN EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEN DIHARDUTE

**Urtea amaitzear dugu, balantzerako ordua izango dute eremu anitzetan, lan munduan bereziki. Bat baino gehiagorentzat baita eremu pertsonalean ere; egindakoaz edo bideratu gabe utzi ditugun proiektu horietaz hausnartu eta 2020ra begira jartzeko tenorean izango dira asko.**

Urte berriarekin erronka berriak marrazteko joera izaten da. Bizi-kalitate hobearako edo bizimodu zoriotsuagorako bidea marrazten hasten garenean planteatzen dugun erronka berrietako bat, sasoiari egotea da edo norberak duenari eustea. Geure burua, osasuna zaintzeko zabalik ditugu urte osoan Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo Kiroldegiak.

Instalakuntza guztiotan eskuragarri dugu ikastaro eskaintza zabala; lehorreko nahiz uretako jarduerak, adin tarte guztiei, eta kolektibo espefizikoei zuzendurikoak. Kiroldegiaz norberak egin nahi duen erabilera egokituko diren prezio eta abonua mota ezberdinak eskura.

Ikastarootara kirol jarduerari ezberdinetan trebatzera goaz bai, baina ezin ahaztu, hartuemanetarako eremu ere baditugu guneok. Zein da ahotan darabilgun hizkuntza igerileku nahiz gimnasioetara goazenean? Familia barruko transmisioan, Errenta Aitorpean, autoeskolatan, Lanbide Heziketan edota merkataritzan egin izan duten moduan, Kiroldegietan ere euskararen



**Ikastaro bateko partaide guztiek edo ia denek (hiru laurdenetik gora) euskara ulertzen badute, ikastaroa erabat euskaraz edo nagusiki euskaraz eskaintzen da. Argazkia: Serenare Pice (unsplash.com).**

### BURUNTZALDEA

**“Hizkuntza-erabileren araberrako talde mota ezberdinak sortzen dira ikastaroetan”**

erabilera sustatzen dihardute Buruntzaldeko udalek.

### Kirola euskaraz programa

Udal instalakuntzotako entrenatzaile eta ikastaroetako parte hartzaileen gain dago noski, jarduerotan ahotan hartzen den hizkuntza-erabilera. Adina kontuan izanda, bi eremu argi desberdin beharrik daude;

batetik, 16 urtera arteko haur eta gaztetxoak. Kirol instalakuntzotako erabiltzaileek praktikaz dituzten kirol jardueretan euskaraz aritzeko gai dira nagusiki, Buruntzaldeko udaletatik aipatzen dutenez, “Kirola euskaraz programa eta bereziki Kiroldegietako ikastaroak euskalduntzeko egitasmoa abian jarri zenetik”. Euskaraz garatzen dira kirol jarduerak haur eta gaztetxoak biltzen dituen adin tarte honetan.

### Erabilera datuak

16 urtetik gorakoan artean, helduetara jotzen badugu alegia, anitzagoa da errealitatea. Euskara ahotan hartu eta kirol

ekintzetan entzuna izateko hizlariak behar ditu noski. Jorrazten ari garen jardun eremu honetan. Euskara komunikaziorako bitarteko bilaka dezakete begirale edo entrenatzaileek eta banaka nahiz taldean sasoiari mantendu edota giharrak lantzen diharduten kirolariak.

Buruntzaldea eskualdeko kirol instalakuntzotako ikastaroetako erabiltzaileen artean, profil ezberdinak daude hizkuntzaren ezagutzaren eta erabilera erreparatzen badiogu; egunerokoan nagusiki euskaraz mintzo direnak, euskaraz eta beste hizkuntzaren batean dihardutenak, edota nagusiki euskara ez den beste hizkuntza bat ahotan hartzen dutenak izaten dira jarduerotara gerturatzen diren erabiltzaileak.

Errealitate anitz honek ezinbestean, ikastaroen antolakuntzan eragiten du. Zein hizkuntzatan jarduten dute kirol jardueretan? Ikastarook zein hizkuntzetan eskaini, nola erabakitzen dute? Jarduerotan baliatzen den hizkuntzak kontuan hartzeko moduko eragina du. Buruntzaldeko udaletatik aditza eman dutenez, hizkuntza-erabileren araberrako talde mota ezberdinak sortzen dira ikastarootan.

## Irizpideak, tokiaren araberrakoak

Hala, ikastaro bateko partaide guztiek edo ia denek (hiru laurdenetik gora), partaideen %75-100ak euskara ulertzen badute, ikastaroa erabat euskaraz edo nagusiki euskaraz eskaintzen da.

Aldiz, partaideen erdiak baino gehiagok, hau da, %50-%75ak euskara ulertzen badu, nagusiki euskaraz ematen da ikastaroa edo elebrietan, euskaraz eta erdaraz. Jarduera hauetan aritzeko

osatzen diren taldeetan, partaideen erdiak baino gutxiagok (%0-50) ulertzen badu euskara, elebrietan, hots, euskaraz eta gaztelaniaz, edo nagusiki gaztelaniaz eskaintzen da.

Irizpideok herriz herri nola aplikatzen diren aztertzen hasiko bagina, errealitate anitzarekin, tokian tokiko hizkuntza erabilera desberdinekin aurkituko ginatke Buruntzaldean.

# Hamaika ikastaro aukeran

## Andoain

Lehorreko ekintzak: kross training, aerobik, zunba fit, spinning, pump, balance, aquagym, fitness, soinketa, yoga, GAP, Aerobik + GAP, Aerobik + Balance, Spining + Pump, Balance + Pump, Combat + Pump, Combat + Spining, Combat + Zunba Fit, K-stretch, hipopresiboak, emakume korrikalaria.

Uretako ekintzak: igeriketa hastapena, hobekuntza, saio partikularrak.

## Astigarraga

Lehorreko ekintzak: aireko pilatesa, bungee airfit, pilatesa, bikarra zainduz, gimnasia 65+, hipopresiboak hastapena, mantentze hipopresiboak, fit pump, ziklo indoor, aerofit, zumba, strong by zumba, TRX, jump fit, HIIT, bosu xtreme, dantza moderna, irristaketa. Ikastaro konbinaketak (aireko pilatesa, bungee air fit eta hipopresiboak izan ezik).

## Hernani

Fitness aretoko ikastaroak: Aerobika multifitnessa, zun-



Igerilekuan nahiz areto barruan, Buruntzaldeko kiroldegietako eskaintza oparoa da. Argazkia; Maddi Bazzocco (unsplash.com).

ba, mutilfitnessa, karatea, pilatesa, ziklo indoorra, indoor walking-a, hipopresiboak, korea, korea + luzaketak, erditu ondorengo emakumeentzako hipopresiboak + luzaketak, hirugarren adinekoentzako gimnasia. Konbinatuak: indoor walking + zirkuitu entrenamendua. Pilatesa + zunba.

Multijarduera: pilatesa, Indoor Walkinga, ziklo indoorra, hipopresiboak... Zirkuitu entrenamendua.

Uretako ikastaroak: Haurdunak.

2003aren aurretik jaiotakoentzatzat: hastapena, mantentze igeriketa, aquagyma, aquagyma + pilatesa, aquagyma + indoor walkinga.

55 urtetik gorakoentzatzat: mantentze igeriketa.

65 urtetik gorakoentzatzat: hastapena, aquagyma, aquagyma + indoor walkinga.

Egokitua.

Osasuna hobetzeko ikastaroa, lesio arinak dituztenentzatzat.

## Lasarte-Oria

Mantentzeko gimnastika, entrenamenduen gida/banakako entrenamenduak/aholkularitza zerbitzua (>16); Kontzeju Txiki, nagusien parkeko makinak erabiltzeko aholkularitza (>60 urte); mantentzeko igeriketa, aqua gyma (<16); aerobika; zunba; body zunba; igeriketa gidatua; indoor txirindularitza; pilates; body pump; tonifikazioa; stretching; aniztasun funtzionala dutenentzatzat kirol jarduerak. Igerian ikastea.

## Urnieta

Spinning, tonifikazioa, zumba, 3. adina, fitness aholkularitza.

## Usurbil

Areto jarduerak: spinning, pilates, pilates plus, 3. adina, zumba, total training, jumpfit, bizkar osasuna, hipopresiboak, a.f. gimnasia, yoga-mindfulness, yoga, mantenu gimnasia, helduentzako eskalada gunea. Ur jarduerak: ur entrenamendu gidatua, matropilates, aquagym, aquazunba, igeriketa hobekuntza, igeriketa hastapena, igeriketa entrenamendua.

## Ordutegiak

### Usurbil

■ Lanegunetan 7:00-12:30/14:30-22:00 (igerilekuaren itxiera 12:15ean eta 21:00ean).

■ Larunbatetan 9:00-21:30 (igerilekuaren itxiera 21:00etan).

■ Igande eta jai egunetan 9:00-13:30 (igerilekuaren itxiera 12:45ean).

### Andoain

■ Allurralde Kiroldegia: lanegunetan 7:00-22:30 (igerilekua 21:30ak arte, sauna 21:00ak arte), larunbatetan 9:00-20:30

(igerilekua eta sauna 20:00ak arte), igande eta jai egunetan 9:00-13:15.

■ Arrate: lanegunetan 9:00-13:00/16:00-23:00, larunbatetan 9:00-13:00/16:00-20:00 eta igande zein jaiegunetan 9:00-13:15.

### Astigarraga

■ Lanegunetan 8:30-22:30, larunbatetan 9:00-13:00/15:00-20:00, igandeetan 9:00-13:00.

### Hernani

■ Kiroldegiko igerilekuak: la-

negunetan 6:45-21:00, larunbatetan 9:00-20:00, igande eta jaiegunetan 8:30-13:00.

■ Gimnasioa, pistak, frontoia, squash, sauna: lanegunetan 6:45-21:30 (sauna 8:00-21:30), larunbatetan 9:00-20:00, igande eta jai egunetan 8:30-13:00 (sauna 9:00-13:00 artean).

### Lasarte-Oria

Maialen Chourraut kiroldegia: lanegunetan 7:00-22:30, larunbatetan 9:00-20:00 artean, igandeetan 9:00-13:00 artean.

■ Igerilekua: lanegunetan

7:00-12:30 / 14:00-21:30, larunbatetan 9:00-13:00 / 16:00-20:00, igandeetan 9:00-13:00.

■ Sauna: lanegunetan, 9:00-12:30/15:00-21:00. Larunbat, igande eta jai egunetan itxita. Kirol gunea (Michelin): lanegunetan 15:30-22:30, larunbatetan 9:00-20:00, igandeetan 9:00-13:00.

### Urnieta

■ Lanegunetan 8:30-22:00.

■ Larunbatetan 9:00-21:00.

■ Igande eta jai egunetan 9:00-14:00.

# Udalaren SOS deiak erraustegiaren aurka batu zituen ehunka lagun

**A**lboan behar zaituztegu, SOS mezu honekin deitu duen Usurbilgo Udalak abenduaren 13an herriko kaleak zeharkatu zituen manifestazioa. Eta jendeak erantzun zuen, eta nola gainera. Ehunka lagunek probaldi fasean martxan den erraustegia geratzea exijitu zuten duela astebete, Usurbilgo kaleetan.

Udaletxe atariko Joxe Martin Sagardia plazatik abiatu zen “SOS Usurbil. Erraustegia gelditu” aldarria zeraman manifestazio jendetsua. Manifestazioaren buruan, Usurbilgo udal gobernu taldeko EHBilduko kideak, udal ordezkari politiko bakarrak. Manifestazio hau eta abian jarri dituzten ekimen gehiagoren (gutunak Gipuzkoako alkateei, xingola beltzak jartzeari, Ahaldun Nagusiari biltzeko eskatzea...) sustatzaile bakarrak.

Udaletxetik abiatu eta Kaxkoari itzulia eman zion mobilizazioak frontoira heldu



Manifestazioan etengabeak izan ziren erraustegiaren aurkako oihuak.

## UDAL ADIERAZPENA

**“Ez dago justizia klimatiko posiblerik Gipuzkoan, errauste-planta martxan jarrita”**

arte. Bidean, etengabeak izan ziren erraustegiaren aurkako oihuak, “ez erre gure hondakinak” edota “Olano entzun, ez Zubietan ez inon” zioten aldarriak.

Erraustegia piztea erabaki

duten agintari politikoekiko haserrea agertu zuten. Ernai gazte mugimenduaren izenean pankarta bat ikusi ahal izan zen, “PNV herriak ez du barkatuko. Utzi bizitzak kutsatzeari” zioena.

## “Zuen elkartasuna eta berotasuna sentitu ditugu”

Animu hitzokin amaitu zuen Usurbilgo alkate Agurtzane Solaberrietak aipatu mobilizazio jendetsua. Esker ona agertu zien, manifestazioan parte hartu zuten herritar zein Usurbila

etorritako gipuzkoarrei. “Zuen elkartasuna eta berotasuna sentitu ditugu: bakarrik ez gaudela sentitu dugu, erraustegia martxan jarri duten fase berri honetan, ezinbestekoa zaiguna”.

Alkateak gogorarazi zenez, “Usurbilgo Udalak errauste plantaren aurkako deliberoa hartua du eta bide horretan sakontzeko prestutasun osoa dugu. Animo eta aurrera!”.

Klima aldaketaren inguruko mundu mailako goi bilera eginen ari dira asteotan Madrilan. Usurbilgo alkateak “justizia klimatikoa” galdegin zuen. “Ez dago justizia klimatiko posiblerik Gipuzkoan, errauste-planta martxan jarrita. Ez dago justizia klimatiko posiblerik egun indarrean dugun hondakinen kudeaketa eredu honekin. Ezin dugu klima aldaketaz hitz egin, beraz, hondakinen kudeaketaz hitz egin gabe. Eskutik doaz: txanpon beraren bi aldeak dira”.

## Hondakinak ondo sailkatzea, “guztion betebeharra”

Hondakinen kudeaketari dagokionean, atez atekoari esker Usurbilek lortutako %90eko gaikako bilketa ekarri zuen gogora, baita 2016ko urrian egindako herri galdeketa herri honek erraustegiari emandako ezezko borobila ere. Hondakinak kudeatzeko ardura herritarrena eta herri erakundeena dela gogorarazita, birziklatzea hautazkoa ez, betebeharra dela gogorarazi zuen. “Zuriketa berderik” ez egitea eskatu zuen alkateak.

“Hondakinak ondo sailkatzea guztion betebeharra da, eta ondo sailkatutakoak

ondo tratatzea, ingurumena eta osasuna lehenetsiz, herri-erakundeon betebeharra da. Utzikieriaz edo zabarkeriaz jokatzeari, beraz, ez da inoren eskubidea. Eta, are gutxiago, gure osasuna arriskuan jartzeari. Hori bai ez dela zilegi, Markel Olano jauna, are gutxiago, bestelako eredu alternatiboak gara daitezkeenean”.

Eskandalagarritzat jo zuen, errauste planta proiektuarekin gipuzkoarrak 35 urteetarako hipotekatu izana. “Hautatutako finantziario bideak gipuzkoarrei 35 urtetan behar izango dituzten gaitu gure sosen bidez

enpresa pribatuak finantzatzeara. 35 urteko morrontza ekonomikora behartzen gaituzte, herrietako hondakinen tasak igoaraziz. Eta, gainera, errefusatu zamatuz ordez, sarritu egiten du GHKren tarifa-sistemak. Eskandalu bat!”.

## Erraustegiari bertsotan

Abenduaren 13ko manifestazio jendetsua, frontoiko amaiera ekitaldiko oholtzara igotako herritar batek amaitu zuen bertsotan. 86 urteko gizonak probaldi fasean piztua dagoen erraustegiak sortarazten dionari abestu zion.

## Bertsoa

“Laurogeitasei urte ditut daukat disgusto haundiya martxan jarri dutelako Zubietako erraustokiya ke asko ateatzen da gaiña zuri zuria hortik datorren haizia ez da ba oso garbiya gaixotasun asko dakar baita ere minbiziya gure biloba gaixuai utzi diyoun herentziya bertso hau kantatuko det enteratzeko herriya Gipuzkoako Aldundiak dauka erru guztiya”

## “Bakarrik ez gaudela sentitu dugu”



“Zuen elkartasuna eta berotasuna sentitu ditugu: bakarrik ez gaudela sentitu dugu”, halaxe adierazi zuen alkateak manifestazio amaieran. “Erraustegia martxan jarri duten fase berri honetan, ezinbestekoa zaiguna”.

## “Ez eraman gure hondakinak erraustera”

Erraustegiak probaldi fasean 15 egun bete zituen egunean, bizi dugun egoeraren gaineko irakurketa plazaratu zuen Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak, Usurbilgo Udalak antolaturiko “SOS Usurbil, erraustegia gelditu” manifestazioaren aurretik eginiko agerraldian.

Erraustegia pizteko ardura izan dutenei zuzenduta adierazi zuten, “proiektu kriminal hau martxan jarri duten agintarien izenak ez ditugu ahaztuko, ez Zubietan eta ez Gipuzkoan”. Lehengaiak erre eta xahutzea jarduera jasangarria ez dela gogorazi zieten. Herritarrei, “erosi, erabili eta bota” eredu kontsumistak hondamendira garamatzala, “hau ez da bidea!”.

Eskaera zuzena egin zieten



Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak agerraldi bat egin zuen manifestazioaren aurretik.

erakundeei, modu berezian gaikako bilketa eraginkorrrak abian dituzten udalei. “Erraustegiarekin ez kolaboratzeko urrats sendoak emateko sasoi heldu da. “Errausteketak ez!” baldin bada gure aldarria, urrats berri bat eman behar dugu orain: gure udalek zorroztasunez hartu behar dute konpromisoa beraiek bil-

dukako hondakinik Zubietako erraustegira ez bidaltzeko”.

### Donostiari Usurbila etortzeko gonbita

Bestalde, gaikako bilketa kaxkarra duten herri, eta batez ere Gipuzkoako hiriburu den Donostiari mezu zuzena helarazi zioten: “zatozte Usurbila eta ikusi hemendik

zuen axolagabekeriak erretzera bidalitako hondakinak erretzeak zabaltzen duen ke kutsagarria!”.

Erraustegiaren aurkako borrokan ez dutela etsiko argi utzi zuten. Erraustegia gertatzeko ziotenez, “Gipuzkoako herritarrok ere ekintza berriak asmatu behar ditugu”.

### Zarata erraustegitik

Etxeko xurgagailuak ateratzen zuen zarataren antza du azken egunotan Zubietako erraustegitik entzun daitekeenak. Gipuzkoako Hondakinaren Kontsurtzioak esandakoa bete du; ur-lurrunen zirkuitua probaldian jarri dute egunotan. Noiznahi entzun daiteke ariketok sortzen duten zarata eta ura lurrun bihurtuta isurtzen ere ikus daiteke.

# Aspaldiko azokarik distiratsuen

**B**abarrun zein sagardo lehiaketak San Tomas azokako gatzeta eta piperra dira. Juan Karlos Balerdi-ren babarruna izan zen lehen saria eskuratu zuena. Sagardo lehiaketan, aldiz, Joxe Manuel Lizarralde eraman zuen txapela.

Tolosako Babarruna jatorri izendapeneko teknikarien esanetan, hauek izan dira aurtengo lehiaketako babarrun ekoizle onenak:

## Babarrun onena, Izarpekoa

1. Juan Karlos Balerdi, Izarpe etxea (Kalezar).
2. Pili Arroyo, Zugasti baserria (Zubieta).
3. Idoia Orbegozo, Galdagorri baserria (Aginaga).

## Sagardo onena, Etxetxokoa

Sagardoa dastatzen aritu zen epaimahaiarentzat, hauek izan ziren sagardo aipagarrienak:

1. Joxe Manuel Lizarralde, Etxetxo baserria (Zubieta).
2. Antonio Eizagirre, Aldapa baserria (Aginaga).
3. Ana Esnaola, Altzondo (Santutenea).



San Tomas azokaren amaieran egin zen sari banaketa. Argazkian, sarituak eta epaimahaikideak. Argazkiak: Ibai Arrieta.

## SAN TOMAS AZOKA

**“Pasa den igandekoa ekitaldi bete egun izan zen”**

### Bi otar zozkatu genituen

San Tomas azokan bi otar zozkatu ohi ditugu: Errigorako

saski bat eta Zuberoako ikastolen aldeko beste bat. Hauek izan dira aurtengo zenbaki sarituak: 80 eta 55. 80 zenbakiduna bertaratu zen saria hartzeraz. 55 zenbakiduna aldiz, ez. Egunotan, NOAUA!ko bulegotik pasa dadila sari bila 55. zenbakiaren jabea.

### San Tomas azoka, Ibai Arrietaren begiradapean

San Tomas egunak eman zuenarekin, Ibai Arrietak argazki galeria bat osatu du gure web orrialdean. Orriotan diren irudiak, eta beste asko, helbide honetan topatuko dituzue: [noaua.eus/galeriak/](http://noaua.eus/galeriak/)



San Tomas azokaren aitzakian, Sutegin aritu ziren Ixabel Agirresarobe ipuin kontalaria eta Iñaki Martiarena ‘Mattin’ marrazkilaria. Herriz herri ibili ohi dira ‘Irudipuinak’ izeneko ikuskizuna eskaintzen eta

pasa den igandean Usurbilen izan ziren. Saioan zehar, adidi izan zituzten ikusleak. Bi artista hauek, berriki, ‘Amona Tomaxaren abenturak’ ipuina plazaratu dute NOAUArekin batera.



Orbeldi Dantza Taldeko gaztetxoak saio berezi bat prestatzen aritu dira azken hilabeteotan. Igandean, San Tomas azokaren aitzakian, Mikel Laboa plazan aritu ziren dantzaz. Gaztetxoekin batera,

begiraleak eta Orbeldiko hainbat kide heldu animatu ziren. Ikuskizunean zehar, Mikel Laboa plaza gainezka egon zen. Igandekoa urteko azken emaldia izan zen. Inauterietan itzuliko dira berriro plazara.





San Tomas azokan jende ugari ibili zen. Sari banaketaren amaieran, Aizpea Aizpuruari omenalditxoa egin zitzaion. 8 urte eta erdi egin ditu NOAUAn lanean eta lankideek zein San Tomas azokako partehartzaileek txapela batekin eskertu nahi izan zioten urteotan egindako guztia. Argazkiak: Ibai Arrieta.

# Mural berri bat, Judas Arrietaren eskutik

**K**ulturari, arteari, sornari eskainitako txoko berri bat du Usurbilek. Herriak duen artelanen sarera batu da joan den larunbateko Harria Hitz ibilbide gidatuan aurkeztu zuten Judas Arrietaren sortze lana.

Udalaren enkarguz, hondarribiar marrazkigileak margotutako mural koloretsua frontoi atzealdean duzue ikusgai. Aurkezpenean bertan sinatu zuen bere sortze lana egileak. “Usurbil hartu dut, filtratu dut, nire gorputzetik pasa eta hau da atera dena”, Arrietak zioen.

Egiteko modua, txertatu dituen elementuak, baliatu dituen teknikak... Horren guztia nahasketa bat da Judasen sortze lana. Edukiari erreparatuta, “Usurbil herria deskribatzen duten elementu batzuk agertzen dira”. Sagardoaren kulturari lotutako kupela, sagar loreak, ardiak, dantzarien abarkak, txalaparta, Laboaren kitarra, Zumeta eta sortzaille gehiagok sortu zuten Gaur mugimenduaren omenez izena bera marraztua...

Herriko beste muralekin hartuemanetan jartzen duten elementuak ere txertatu ditu Arrietak. “Ez dakizu muraleko elementu bat hor zegoen edo beste norbait etorri eta gehitu duen”. Graffiti ote den, pintada bat... “Kalean aurkitzen ditugun adierazpen guztiek aberastu eta deskribatzen dute



Udarregi bertsolariaren omenez Remigio Mendiburuk sortutako eskulturaren parean dago Judas Arrietaren murala.

## JUDAS ARRIETA

**“Hormetan aurkitzen ditugun elementu guztiak dira herriaren isla eta hori ordezkatzeko saiatu naiz”**

gure herria. Hormetan aurkitzen ditugun elementu guztiak dira herriaren islada eta hori ordezkatzeko saiatu naiz. Niretzat luxu handia izan da halako euskarri izugarri handia eta polita izatea”.

### Hormak irakurtzen jakitea

Mural honen jatorria, Judasek Usurbilgo gaztetxoekin egindako tailer batean dago. Tailer hartan, herriko hormetan gertatzen zenari buruzko hausnarketa sustatu nahi zuen. “Hori irakurtzea, ikastea. Herriko muralak, graffitiak eta pintadak bereiztea, bereiztea

zer den legezkoa eta legez kanpoko. Belaunaldiz belaunaldi herritarrok paretak gure kezka, protestak adierazteko erabili izan ditugu. Oso garrantzitsua da hori irakurtzen jakitea”.

Teknika ezberdinak baliatu ditu sortze lan honetan; “graffitiek lotutako espraiak daude, muralismoarekin lotuagoak dauden pintura akrilikoak eta pintadekin lotutako errotulkiak”. Kultura desberdinen eraginez isla ere bada artelana. “Beti erabiltzen ditut kultura ezberdinetako elementuak eta horiek elkartzat sortzen da armonia, aberastasuna”. Bere zigilu propioa erantsi dio Usurbilgo elementu adierazgarriei. “Komiki amerikar eta japoniarreko elementuak agertzen dira eta elementu horiekin guztiekin elkarrizketa bat sortzen da”.

### Artea, nonahi

Kokaguneari erreparatzen badio, frontoi atzealdean duzue murala aipatu moduan. “Aukera polita da aurkitzea halako herri bat non arteak bere garrantzia duen”. Estudioko marrazkilaria izanik, argi dio, “arteak leku guztietan egon behar du, ez bakarrik estudio edo galerietan, gehienbat kalean gure egunerokotasunean, soinu banda baten moduan”.

Udarregi bertsolariaren omenez Remigio Mendiburuk sortutako eskulturaren parean dago Judasen murala. “Gune honi hondarribitarren txokoa deitu beharko diozue aurreantzean”, bi artistak aipatu Bidasoa ertzeko herrikoak baitira.

Helburu jakin batekin sortu du murala. “Artearekiko herriaren jarrera zein den islatzea zen helburua eta inguruetako muralekin loturak bilatzea”. Islatzen den horrez gain, herriaren artea zabaltzea oso aberasgarritzat jotzen du Judasek, batetik, hormak birgaitzeko baliagarria baita, “murala margotu baino lehen, paretan hori egokitu eta berritzen da”. Lehen graffiti eta pintadetz betea zegoen frontoi atzealdeko hormarekin Udalak egin duen moduan. Modu horretan, “herria txukuntzen dugu eta beste turismo mota bat sortu, gainerako herrientzako eredu izan daitekeen beste era bateko bisitariak erakarritza”.

## “Usurbilek badu munduari zer erakutsi”

Turismo eredu jakin baten adierazgarrietako bat baita Judas Arrietaren murala. “Guretzat turismoak izan behar du hartuemaneko ekintza bat, elkar ezagutzeko ekintza interaktibo bat, elkar aberasteko balio behar duten ekintza bat”, zioen abenduaren 14ko aurkezpenean Agur-

tzane Solaberrieta alkateak. Alde horretatik, alkatearen esanetan, “guretzat Usurbilek badu munduari zer erakutsi; kultura, artea, gure hizkuntza den euskara... Gure herri nortasunaren parte diren balio horiek guztiak”. Judasen murala turismo eredu horren isla da. Harria Hitz ibilbide gida-

tuarekin egiten duten moduan, “Usurbilek eta arteak zer nolako lotura duten erakutsi nahi genuen”, zioen Solaberrietak.

### Artista handien topaleku

60. hamarkadako kultur ez-tandaren lekuko da Usurbil, “Usurbilgo kaleetatik buelta bat ematea aski da zer altxor

dituen, gure herrian zer nolako artista handien lanak ditugun ikusteko”. Hori azpimarratzearekin batera, garrantzitsutzat jotzen du Udalak “zer garen azpimarratzea ere. Gaur egungo artistei ere toki bat egiten jarraitu nahi dugu eta Harria Hitzek horiei guztiei lekua egitea nahi genuke”.



Idoia Torregarai Martija

Zientzialariek galdera handiei erantzuna ematen saiatzen dira: ba al dago bizitzarik lurretik haratago? Nola funtzionatzen du burmuinak? Nola bizi ginen selfi-makilarik gabe? Galderak egitea ezinbestekoa da erantzunak jakiteko, gizateria hobetzeko, baina argi, galdera arriskutsuak ere badaude eta. Adibidez, emakumeoi tonu desatseginez egiten dituten hau: Zer zaude, reglarekin?

Zergatik gertatzen da hau? Batez ere ezezagutzagatik. Emakumearekin lotutako kontuak (ere) bigarren mailan daude gure gizartean. Eta ondorioz, gaur egun oraindik, hilekoa edo gure erreproduktzio sistemaren gaineko informazioa askoz ezezagunagoa da gizonezkoena baino. Argi izpi bat eman nahi nuke alor hone-tan lerro hauen bidez.

Emakumeon hileko zikloa hilabete osoan zehar ematen da, eta bertan, hormonek eragin handia dute, gora behera handiak izaten dituztelako. Obulazioa gertatu aurretik, adibidez, progesterona, hormona lutegi-igarria eta folikulu estimulatzaileen mailak gora egiten dute. Alegia, obulua fertilizatzeke prest dago eta ondorioz, umore hobea goga izaten dugu (orokorrean), fisikoki erakargarriago bihurtzen gara eta... BAI, txortan egite-

## Hilekoaren kontuak argitara



"Ikusi nahiko nituzke gizonak hilabetero barrabilak ahuakateak bezala handituta eta zerako puntan tanpoi bat jarrita". Irudia: Gaztezulo.

### IDOIA TORREGARAI MARTIJA

**"Obuluak 250 milioi espermatozoideren arteko casting bat egiten du. To eta no! Hori ez bada protagonista izatea, esango didazue zer den"**

ko gogo gehiago izaten dugu! Zergatik ez da horretaz gehiago hitz egiten?

Baina obulazio kontuetan ere ziria sartu digute emakumeoi. Izan ere, ernalketan nagusitasuna gizonari emateko joerak gaur egunera arte iraun du. Erakutsi digutenaren arabera, espermatozoidea da heroia, eta obulua, konkistatua. Harengana iristeko, espermatozoideek elkarren aurka lehiatzen dute, eta tranpaz eta arriskuz betetako bidea egitera behartuta daude. Abilenak baino ez dira

gai izango bukaerara iristeko. Haietatik bakarrak (azkarrenak, trebeenak) lortuko du obulua-ekin bat egitea. Espermatozoiden trebeziari obuluaren geldotasuna kontrajartzen zaio. Izan ere, kontatu digute obuluak ez duela ezer egiten, pasiboa dela. Baina ezta gutxiago ere!

Duela bi urte egindako ikerketaren arabera, (danbor errepika sartu hemen, mesedez) obuluak aukeratu egiten du espermatozoidea bere DNAREN purutasunaren arabera eta horretarako obuluaren kanpoaldea biguntzen du sar dadin! Alegia, obuluak 250 milioi espermatozoideren arteko casting bat egiten du. To eta no! Hori ez bada protagonista izatea, esango didazue zer den.

Baina natorren berriro ziklora. Hilekoa iritsi aurreko egunetan eta lehenbiziko egunetan progesterona, serotonina, nora-

drenalina eta oxitozina mailak jaitsi egiten zaizkigu, eta horrek tristura, antsietatea eta umore petrala eragiten digute. Horretaz gain, odola galtzen dugu eta ahulago gaude ondorioz. Odolaz ari garela, utzidazue datu batzuk ematen: pertsona heldu batek 4,5-5,5 litro odol ditu gorputzean. Horieta-tik 50 eta 150 mililitro galtzen ditugu hileko bakoitzeko, eta kontuan izanda bataz beste 400 hileko izaten ditugula guztira, bizitzan zehar 50 litro galtzen ditugu! Argitu nahiko nukeen beste gauza bat hauxe da: telebistako iragarkiek bestela erakusten badute ere, gure hilekoaren odola GORRIA da.

Odolaz gain, ordea, beste ondoez batzuk ere izaten ditugu egun hilekoa dugunean: sabeleko kalanbreak; gorputza puztu egiten zaigu likidoak gordetzeagatik; bizkarreko, gerriko, buruko eta titietako mina izaten dugu; idorria edo beherakoa ere bai (eta batzuetan batera) eta hori gutxi ez eta gure uteroa hiru aldiz handitu egiten da! Beraz, barkatu egun horietan umore oso petrala baldin badut, baina ikusi nahiko nituzke gizonak hilabetero barrabilak ahuakateak bezala handituta eta zerako puntan tanpoi bat jarrita. Ziur nago kasu horretan hile-ro astebeteko baja ordaindua izango zenuketela!

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpirotz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapirain

Idoia Torregarai Martija

Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!

# USURBILGO HORTZ KLINIKA

ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA  
EKAITZ GARMENDIA MERINO

Kale Nagusia 10, 1.C4  
Tlf 943 37 08 78

RPS: 28/17

20170  
USURBIL



# Olentzeroren bisita egunbete aurreratu dute Aginagan



Abenduaren 22an, 18:00ak aldera egingo diote harrera Sekaño parean.

ludotekan. Haur eta helduei zuzenduriko Patata Tropikala

taldearen emanaldirako sarrera doakoa izango da. “Animatu zaitetze, primeran pasatuko dugu eta!”.

## Aginagako eskolako zozketa



Agustin Romo izan zen apustuko irabazlea.

Oporren atarian dira Aginagako eskolako kideak. Ostiral goizeko (abenduak 20) 10:00etan irtengo dira gabon kantak abes-tera Aginagan barrena, ikasle, irakasle eta gurasoak. Eguberrietarako NOAUA!ren San Tomas Azokan hasi ziren girotzen.

Abenduaren 15ean postua jarri zuten frontoian eta iaz bezala, apustu batean parte hartzeko aukera eskaini zuten. Kalabaza baten pisua asmatu behar zen; 5.485 kg pisatzen zituen. Apustuko irabazlea ondoko irudian duzue; Agustin Romo.

## Aginagako beteranoei gorazarre



Arrate elkartearen omenaldia jaso berri dute. Argazkia: Maria Angeles Arruti.

Arrate elkarteak 80 edota 90 urtera heldu diren aginagarrak omentzen ditu urtero. Aurten lau lagun: Satur Azpiroz (90

urte), Patxi Maioz (80 urte), Xanti Algorta (80 urte) eta Joxemari Maioz (80 urte). Zorionak! Argazkia: Maria Angeles Arruti.

# Nahia Zudaire: “Igeriketaz disfrutatatu nahi dut orain”

Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutako Kirol Galako irabazleak aurkeztu berri dituzte, eta ez da usurbildarrik izan tarteko. Hautagaien artean ordea, Nahia Zudaire zubietarra zegoen, besteak beste. 16 urteko igerilari gaztea da zubietarra, eta kirol egokituari dihardu txikitatik. Haren ibilbidea ezagutu nahi izan du NOAA!k.

**NOAUA! Gipuzkoako Foru Aldundiak 2019an antolatutako Kirol Galan hautagaien artean izan zaitugu nahiz eta ezin izan duzun irabazi. Nola hartu zenuen hautagaien artean egotea?**

**Nahia Zudaire:** Oso pozik hartu nuen berria. Uste dut lehen aldian izan dela Kirol Gala batean elbarritasuna duten pertsonak eta ez dutenak barnebiltzen dituztela. Aitorpen bat izan da ez soilik kirolari gisa, baizik eta kirolari egokitu moduan. Bideak irekitzen ari direla esan nahi du horrek, eta pozgarria da.

**Zure lana ezagutaraztera emateko aukera izan da, ezta?**

Eliteko kirolari ezagunen artean egonda gustura sentitu naiz, kirolari egokituen artean ezagutarazteaz gain, kirolari modura ezagutuko naute



Luze eta zabal hitz egin genuen Nahia Zudairekin. Elkarrizketa osoa [noaua.eus](http://noaua.eus) web orrian duzue irakurgai.

## KIROL GALAN HAUTAGAI

**“Uste dut lehen aldian izan dela Kirol Gala batean elbarritasuna duten pertsonak eta ez dutenak barnebiltzen dituztela”**

horrela. Hala izan behar luke beti. Irakasleek eta eskolako lagunek ere ikusi nautela esan didate eta nire aldeko bozka eman dutela ere bai. Zentzu horretan desberdintasunak ikusi ditut; hobekuntzak.

**Ez dira gutxi azken aldian lor-**

**tu dituzun garaipenak. Espainiako selekzioarekin ere bazabiltza, Tokio duzu helmuga?**

Markak urria amaieran jarri zituzten, eta nahiko zailak direla ikusi dut. Garaiz hasi behar da txapelketetan maila ematen. Joan den urtean, adibidez, ekaina amaieran hasi behar nuen txapelketak irabazi eta maila ematen, aurten, berriz, martxoan hasi beharko dut maila defendatzen. Aurten munduko txapelketan konturatu naiz dena ez dela txapelketa, ibilbideaz disfrutatatu behar dudala. Saiatuko naiz Tokiora

joaten izugarritzko esperientzia delako, baina batez ere bitarteko bidea disfrutatzen saiatuko naiz. Behin momentua iritsita prest ikusten banaiz aurrera egingo dut, baina ikusten badut presioa gehiegizkoa dela eta ez naizela maila emateko gai izango ez dut aurrera egingo. Gogoia daukat parte hartze-ko, baina pixkanaka egin behar dut. Marka batzuk asko jaitsi beharra daukat, baina gogo handiekin hartzen ditut entrenamentuak eta gustora nabil. Gai ikusten naiz maila ematera iristeko.

## “Espainiako txapelketa daukat orain buruan”

**NOAUA! Epe motzean zein erronka dituzu?**

**Nahia Zudaire:** Espainiako txapelketa daukat orain buruan, martxoan ospatuko dena. Helburu gisa hori jarri dut. Europako txapelketa jarriko banu, oso urrutiko dago eta lasaitu egin nahiteke. Or-

duan, bidea pixkanaka egingo joateko gertuagoko helburuak jarri beharra daukat. Entrenamentuetan zerbait izan behar dut buruan nolabait. Disfrutatzeke asmo horrekin jarraitzeke aukera ematen didate horrelako txapelketek, presiorik gabe.

**Kirolari moduan, zein litza-teke zure ametsik handiena?**

Duela gutxi arte Joko Olinpiko batzuk zirela esango nuke, baina orain ez dakit benetan hori den nahi dudana.

Prozesua nolako den iku-

si dut orain, eta zer nolako lana egin behar den hara iristeko. Ez dakit zein puntutarako daukadan gaitasuna eskakizun horietara heltzeko. Igeriketaz disfrutatatu nahi dut orain, joan den urtean jendeaz disfrutatatu nuen, baina ez igeriketaz.

# Mendiko federatu lizentziak berritzeko garaia da

2020. urterako lizentziak berritzeko garaia da. Ordainketak Andatza M.K.K.-ren kontu zenbakian egin beharko dira eta ordain-giria mendizale taldeak udal-txe ondoan duen lokalera eraman beharko da haiek tramitea bideratzeko.

## Andatzaren egoitzara bertaratu

Egun eta orduotan egongo dira Andatzakoak garai bateko DYA-ren kokagunea izan zen egoitzan: abenduaren 18an, 19an, 20an, 23an 26an eta 27an 18:00-19:30 artean eta abenduaren 21ean, 10:00-11:30 artean.

## Informazio gehiagorako:

andatza.com  
andatzamkk@gmail.com

## “Hotzak Akabatzen” proba, urtarrilaren 26an

Urtarrilaren 26an (9:00etan frontoitik) ospatuko den mendi bizikleta gaineko probarako izen emateak zabalik segitzen du 16 urtetik gorakoentzat ki-



Egunotan berritu ditzakezue lizentziak.

## ANDATZA M.K.K.

**“Egunotan Andatzaren egoitzatik pasa beharko da lizentzia berritzera”**

rolprobak.com atarian. 14-16 urte arteko txirrindulariek ere

parte hartu ahalko dute, uneoro heldu batean ardurapean badaude.

## Izen-ematea

Kasutan izen ematea, irisasibtt@gmail.com helbidetik bideratu beharko da.

## Dantza batean etorriko zaizkigu Inauteriak

Aukeratua dugu gaia! Otsailaren 22an (larunbata) ospatuko dugun Inauteri Festarako zertaz mozorrotu hautatua dugu. Iaz jostalarien herria izan bagenuen Usurbil, 2020an dantzarietz josiko zaigu herria.

## Zirimararen ideia

Dantza da bi hilabete barru ospatuko dugun jaialdirako mozorrotzeko gaia. Zirimara eskola kiroleko proiektu eraberrituko kideen ekarpena izan da. Hasi mozorroa prestatzen!



Otsailaren 22an egingo da Inauteri Festa. Argazkia: Ibai Arrieta.

## Blues doinuak Zendoian



Ñaco Goñi eta Fernando Beiztegui Zendoia tabernan aritu ziren larunbatean.

Blues doinuek girotu zuten Zendoia taberna abenduaren 14an. Ñaco Goñi harmonika joleak eta Fernando Beizte-

gui gitarra joleak girotu zuten joan den larunbat iluntzeko poteo garaia. Argazkia Zendoiakoe igorria da.

## Rikardo Arregiren omenez



“Zutik” filmari buruzko azalpenak eskaini zituzten Sutegiko ekitaldian.

Igande arratsaldean ‘Zutik’ film laburra eskaini zuten Sutegin. Ainara Mendiolak zuzendu du Rikardo Arregi

zenaren inguruko fikzioa. Iru-di batzuk Usurbilen grabatu ziren. Malutafilms-ek ekoitzi du filma.

# Miriam Arrillaga Beloki, Emakume Master Cupeko txapelduna

Emakume Master Cupeko 4 t'erdiko txapelketa irabazi zuen Miriam Arrillaga Belokik, igandean Barakaldon jokatu zuen final handian. 22-11 nagusitu zitzaion lehiakide zuen Miren Larrarteri.

“Aginagarrak lortutakoa pilota mistoarekin jokatutako lehen txapela izan da”, nabarmentzen dute Emakume Master Cup txapelketatik. “Miriam Arrillagak oso pilotari osoa dela erakutsi du. Kantxan ederki mugitu da eta tantoa amaitzen ere badakie-la erakutsi du. Hitz gutxitan esanda, partida borobila jokatu du eta merezimendu osoz lortu du modalitate honetako lehen txapela”. Zorionak!



Barakaldoko finalean, 22-11 nagusitu zitzaion Miren Larrarteri.

## Igande honetan, Zubietako herriaren ongi etorria

Miriam Arrillaga Belokik izandako garaipena ez da ohar-kabea pasa besteak beste Aginagan ezta Zubietan ere. Zubietako herriak ongi etorri

ekitaldia prestatu dio Miriam Arrillaga Belokik (abenduak 22) eguerdiko 13:30ean Alamandegian. Merezitako harrera egin nahi diote Emakume Master Cupeko 4 t'erdiko txapelketa-ren garaileari.

## Eskubaloitako partidak

Abenduak 21, larunbata

Eskola Kirola

■ 10:30 Jubenil neskek, Gipuzkoako Txapelketa:

-Usurbil K.E.

-Astigarragako Mundarro FKE.

■ 12:00 Senior mutilak,

Gipuzkoako Txapelketa:

-Usurbil K.E.

-Urola Laztimendi.

## Gabonetako

### Futbol Txapelketa

Denboraldiko jardunaldiak asteotan eten arren, izango da mugimendurik Haranen urte bukaeran. Gabonetako Futbol Txapelketa antolatu du Usurbil F.T.-k 2009an jaiotakoentzat abenduaren 29an. Goizeko 10:00etan hasita, Allerru KE, Antiguoko KE, Billabona FKE, Lazkao KE, Orioko FT, Usurbil FT eta Urnieta KE taldeek parte hartuko dute Haranen ospatuko den futbol jaialdian.

# Mirotzen omeneko infantilen eskubaloitako txapelketa abenduaren 28an jokatuko da

Hamabigarren ediziora heldu den txapelketa, abenduaren 28an jokatuko da egun osoz, Oiardo Kiroldegian.

■ Eguna: abenduak 28,

larunbata.

■ Orduetgia: 9:00-20:00.

■ Tokia: Oiardo Kiroldegia.

### Infantil nesken txapelketa

■ Parte hartzaileak: Usurbil

K.E., Basauri ET, Anaitasuna, Bera Bera, Tolosa C.F., Aiala ZKE.

Partiden ordutegiak:

■ 9:00 Usurbil KE-Tolosa CF

■ 10:00 Bera Bera-Aiala ZKE

■ 11:00 Anaitasuna-Tolosa CF

■ 12:00 Basauri ET-Bera Bera

■ 13:00 Usurbil KE-Anaitasuna

■ 14:00 Aiala ZKE-Basauri FT

■ 16:00 5. eta 6. postuak

■ 16:20 4. eta 3. postuak

■ 18:40 Finala

### Infantil mutilen txapelketa

■ Parte hartzaileak: Usurbil K.E., Basauri ET, Anaitasuna, Bera Bera, Tolosa C.F., Amenabar ZKE.

Partiden ordutegiak:

■ 9:30 Usurbil KE-Tolosa CF

■ 10:30 Bera Bera-Amenabar ZKE

■ 11:30 Anaitasuna-Tolosa CF

■ 12:30 Basauri ET-Bera Bera

■ 13:30 Usurbil KE-Anaitasuna

■ 14:30 Amenabar ZKE-Basauri ET

■ 16:40 5. eta 6. postuak

■ 18:00 3. eta 4. postuak

■ 19:20 Finala

■ 20:00 Sari banaketa.

### Oharra:

Partida bakoitzak 12 minutuko bi zati izango ditu, tartean minutu bateko atsedendaldia egingo da.

### Antolatzaileak:

Usurbil K.E., FTE, Euskal Eskubaloitako Federazioa, Udala.

**Usurbil Autoak**  
MEKANIKA-KARROZERIA

SUSTITUZIO KOTKEA DOAN!!

ZUMARTEGI INDUSTRIALDEA

943 36 10 79

**ALDAMU**

KONPONKETAK

KALE NAĞUSIA 10- atzekoaldea

943 372 795

**ETXETRESNEN**

**KONPONKETAK**  
eta **SALMENTA**

MARKA GUZTIAK azkar, prezio onean  
20 URTEKO ESPERIENTZIA

645417665

XABIER Usurbil

## ETXEBIZITZA

**Salgai**

Etxebizitza salgai Kalezarren: 79m<sup>2</sup> berriua, 2 gela, komuna, sukaldea, jangela, egongela, harrera. Dena kanpoaldera. Ganbara handia partekatua. 35m<sup>2</sup> garajea aukeran. 686462705

Etxebizitza salgai Santuenean: 2 gela, sukalde handia, egongela, komuna, bi balkoi, egongela. Argitsua, dena kanpoaldera. Etxeko eta komunitateko obra guztiak eginak. Trasteleku pribatua portalean. 677471648

Pisua salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, kalfekazioa. Iggogailurik gabe. Dena berriua. Tximinia jartzeko instalazioa ere berria. Fatxada ere bai. Tel. 695 705 905.

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro karratuko lokala salgai Munalurran. Nahi izanez gero, lizentzia, proiektua eta etxebizitza egiteko aurrekontua eskuragarri. 943 916 182 (Jon)

Etxea salgai, Zubiaurrenean. 70 m<sup>2</sup>. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoia trasteleku. Dena kanpora. Fatxada eta teilatua berriua. 688 779 465.

3 logela eta ganbarako etxebizitza salgai edo alokairuan Aginagan. Berritu berria, eguzkitsu eta lasaia. Tel. 650450869

Etxea erosi nahi dut Usurbilen. Kaxkotik gertu dagoen auzo batean. Gehienez 100.000 euro ordaintzeko prest. Tel. 666 770 851

Etxebizitza eta garajea salgai. Biak batera edo aparte. 3 logela, sukalde-egongela, 2 bainugela. Etxebizitza 78 m<sup>2</sup> eta garajeak 50m<sup>2</sup>. Tel. 676 453 176.

Pisua bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera.

## OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrek doakoak dira. Telefonoz edo emailez helarazi daitezke: 943 360 321 / [erredakzioa@noaua.eus](mailto:erredakzioa@noaua.eus)

Oharrek bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berriak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Ganbara prezio barruan. Prezioa: 205.000 euro. Tel. 629 631 838

**Alokairuan**

Etxe baten bila gabiltza alokairuan edo salmentan Usurbilen. 688 714 317. Deitu asteazken zehar 16:30etik aurrera edo asteburuetan.

Etxebizitza baten bila gabiltza. Baserrri bat zainduko genuke aukeran. Familia bat gara, bi seme ditugu eta euskaldunak gara. 630 335 561.

Usurbilgo Kale Nagusian etxea partekatzeko lagun baten bila nabil. 26 urteko neska gazte bat naiz eta elkarbizitzeko pertsona zintzo eta arduratsua. Ekainetik aurrera sartzeko. T616 027 636

Marradun garaje bat alokairuan Bizkarre auzoan. Tel. 696 014 585

Alokairuko pisu baten bila gabiltza. Bi neska gara, biak lanarekin, arduratsua eta garbiak. 688893668

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

Logela bat alokatuko nuke. Mutil langilea, serioa eta arduratsua. 651 197 381 / 632 138 393

Alokatzeko pisu merke baten bila gabiltza, bikote bat gara, biak lanarekin, informea ditugu. 675595294

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Ar-

duratsua eta garbia. 612 487 017.

**MOTORRA****Salmenta,****garajeak**

Yamaha Virago 250 XV motorra salgai eta osagarriak opari. 990 euro. 617701173.

Santuenea auzoan trastero txiki baten bila nabil. 626 735 354

Nissan Terrano 2 markako kotxea salgai. 943429682 / 637293471

Kale Nagusian garaje bat salgai. Ez da garaje itxita. Prezioa negoziagarria. 667336405.

Atxegalden garaje bat erosi edo alokairuan hartuko nuke. 653014518

Garaje itxi bat alokatzen da Errekatxiki kalean. Tel. 616 235 366.

Alokairuan 50m<sup>2</sup>-ko lokal/garaje bat Atxegalden. Autoak sartzeko atearekin. Goiko kalea 2. 676453176

Baju bat alokatzen da Munalurra, 4ean. Tel. 652 765 583

Garajea salgai Txaramunto kalean. 23 m<sup>2</sup>, ate elektrikoa eta itxia. 615744628.

**LANPOSTUAK****Lan eskaintzak**

Game Masterra behar dugu Quantum Escape Room-en. Gaztea bazara, eta jokoak nahiz ihes gelak gustatzen bazaizkizu bidali

CV [info@quantum.eus](mailto:info@quantum.eus) helbidera

Usurbilgo neska edo mutil bat behar dugu, ingeleseko klase partikularrak emateko. 608201745

Txiriboga tabernan asteburutarako langileak behar dira. Interesatuok hona deitu: 629 951 931.

Sukaldari laguntzaile bat behar dugu Lukainkategi erretegan. 680 483 164

Zerbitzaria behar da Lasarteکو taberna baterako. Interesatuak deitu telefono honetara: 607110365.

Finantza eta aseguruetakoko kudeatzailea behar da Buruntaldean. Baldintzak: Esperientzia gabe aseguruetan, prestakuntza enpresaren kontura eta kotxearekin. Betebeharrak: profesio-naltasuna eta seriotasuna, lanbide-heziketa eta baldintza onekin. Tel. 699 760 873

Udarregi Ikastola partikularren emateko prest dagoen jendearen zerrenda eguneratzen ari da. Partikularren emateko prest egongo bazina, bidali mezu bat: [gorputzaldiak@udarregi.eus](mailto:gorputzaldiak@udarregi.eus)

**LANPOSTUAK****Lan eskaerak**

Lan nabilen gazte bat naiz. Garbiketan edo pertsona helduak zaintzen, arratsaldetan edo gauean. Tel. 633 159 088.

Lan nabileren, garbiketan, orduka edo externa bezala. 633 148 710

Lan nabileren, pertsona helduak zaintzeko, arratsaldetan edo gauean. 655 986 552

Lan nabileren. Garbiketan edo pertsona helduak zaintzen. Segituan lanean hasteko moduan. 631 703 566

Lan nabileren. Garbiketan edo

pertsona helduak zaintzen. Segituan lanean hasteko moduan. 632 618 839

Lan nabileren mutil bat naiz. Pertsona helduak zaintzen edo garbiketan. Tel. 617 016 290

Lan nabileren. Pertsona helduak edo umeak zaintzen, garbiketan, ostalaritzan edo plantxa egiten. 676 188 411

Lan nabileren. 655 986 552

Mutil langilea naiz. Pisu baten bila nabil alokairuan altzaririk gabe. Soldatarekin. 666 108 164

Haur edo adinekoak zaintzeko emakume esperientzia handia duena eskeintzen da. Baita ere etxeko garbitasunerako. 602568090 / 658706345

Lan nabileren. Helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan. Berehalan lanean hasiko nintzateke. 603 818 142

Lan nabileren. Helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan. Berehalan lanean hasiko nintzateke. 648 271 757

Lan nabileren. Helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan. Berehalan lanean hasiko nintzateke. 617 016 397

Neska arduratsua lan bila nabil, umeak edo helduak zaintzeko edo garbiketan. 632 285 101

Lan nabileren. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. 632 264 187

Lan nabileren. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. 688 712 294

Ikastolatik atera ondoren umeak zaintzeko prest dagoen neska usurbildarra naiz; gaztea eta euskalduna. Edozer dela ere, deitu edo bidali whatsapp mezu bat lasai 688637679 zenbakira, Maddi.

**Zorionak Izar!**

Zeinen handia egiten ari zaren! Oso harro gaude zutaz eta asko maite zaitugu: ilargiraino eta buelta maite zaitugu! Muxu erraldoia etxeko guztien partez!

**Zorionak Bixen!**

Egun ederra pasa eta Urte Berri On. Muxu pottoloak eskualde guztietatik.

**Zorionak Arai!**

San Tomas eguna iritsi zaigu berrirori. 10 urte beteko dituzu larunbatean. Muxu handi bat eta ondo ondo pasa!!!

**Zorionak!**

23a iristen ari da eta familia ospakizunaren zain dago!!! Ondo ondo pasa zure eguna! Muxu handi bat!



Lan bila nabil. Margolari bezala lan egin dut, garbiketa lanetarako titulua dut, "catering"ean ere aritu izan naiz. 686 51 35 36.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. 631 864 292.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketa lan egingo nuke. Tel. 617 748 714.

Lan bila dabilen neska arduratsua naiz, esperientziarekin. Umeak arratsalde zaintzeko prest. Maria 672340330

Pertsona heldu edo dependienteak zaindu edota etxeko garbiketa lanak egiteko prest. Soziosanitario titulua dut eta esperientziaduna. 686 825 587.

Ordukako lan baten bila nabil arratsaldeetarako, garbiketa eta haur edo helduen zaintza lanak egiteko. Berehala hasteko prest. Erreferentziak ditut. Esperientziaduna. 688 77 41 80.

Pertsona helduen zaintza lanak egiteko lan bila nabil. Berehala hasteko prest. Esperientziaduna eta erreferentziak ditut. 658 45 36 76.

Emakume arduratsua, garbiketa lanak eta haur zein helduak zaintzeko prest. 617 75 15 22

Emakume bat etxeko nahiz zaintza lanetan aritzeko prest. Esperientziaduna. 693000147

Lan bila dabilen neska bat naiz. Arduratsua eta esperientziarekin. Garbiketa lanak egiteko prest. 11:00-17:00 bitartean. Tel. 603 315 126

Lan egiteko prest dagoen neska bat naiz. Garbiketa, zahar edo haurren zaintza... Paperekin eta esperientziarekin. 618 350 804.

Lan egiteko prest dagoen neska

bat naiz. Zaharrak, haurrak, etxeko lanak... Esperientziarekin. 688 777 464.

Lan bila nabilen neska bat naiz. Tel 602 069 147

Lanean berehala hasteko prest. Neska jatorra, arduratsua eta lanjile. 604166831.

Lan bila nabil. Garbiketa, pertsona helduak edo umeak zaintzen. Berehala lanean hasiko nintzateke. 632 140 789.

Lan bila dabilen neska arduratsua naiz, esperientziarekin. Berehala lanean hasiko nintzateke.

637 106 649.

Lan bila dabilen mutil bat naiz, esperientzia ere erreferentziarekin pertsona helduak zaintzen. Ospitaleetan, paseatzeko eta pozik edukitzeko prest nago. Berehala lanean hasiko nintzateke. 603 595 656

Emakume arduratsua naiz, eta lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen edo etxeko lanak egiten. 663 488 438

Garbiketa lanetan edo pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke. 617 064 054

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo lukeen neska bat naiz. Esperientziarekin. 663 443 736

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. 619 355 819

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Tel. 633 101 867

Emakume euskaldun bat eskaintzen da, etxeko lanak egiteko. Astean 2 egunez, goizez edo arratsalde. Urtarriletik aurrera. 671 547 567

Neska arduratsua bat lan bila da-

bil. Pertsona helduak zaintzen, umeak zaintzen edo garbiketa. 671277904

Mutil arduratsua bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen. Erreferentziak eta esperientziarekin. Tel. 603 595 656

Lan bila nabil. Helduak zaintzen. 631 996 636.

#### BESTELAKOAK

Ingelesarekin laguntzeko, Usurbilgo pertsona baten bila nabil, DBH 1ean ikasten ari nire alabarentzat. 627 18 46 74

AMC markako eltze bat daukat salgai. Oso ondo dago 943363201

Matxaka; sagarra txikitzeko tresna daukagu salgai. Itziar 637974994.

Baserriko kalabazak salgai. 605 783 227.

Estilo guztietako txirikordak (trenza) egiten dira. 658706345, 60256809.

Andatzpe Elkartean bazkide berriak sartzeko plaza libreak daude. Edozein zalantza argitzeko 669 205 896 (Aitor).

Andatzpe elkarteko bazkidea naiz, plaza saldu nahiko nuke. 699 421 238 Iñigo.

Ohe artikulatua salgai. 1'35 neurriko da eta berri berria dago. 650 027 123.

Urtea zehar ingeleseko klaseak ematen ditut, etxeetara joanda. Jokin. Tel. 600 766 068

#### TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Atalluko Garbigunean, doan hartu daitezke. Astelehenerik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00.

## Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (Ihen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kiroldetgia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala .....	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	692 898 492	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaual Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

## Goardiako farmaziak

**Osteguna 19** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Ostirala 20** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

**Larunbata 21** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Igandea 22** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Astelehena 23** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

**Asteartea 24** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Asteazkena 25** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

## Abenduak 19 - Abenduak 29

**Osteguna 26** GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

**Ostirala 27** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

**Larunbata 28** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

**Igandea 29** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

LARUNBATETAN,  
Usurbilgo bi farmaziak ireki-  
ta egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ  
CASTILLA-LARBURU  
URBIETA KALEA, 7 HERNANI  
943552941

Gainontzeko datak [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com) web orrian ikusgai.

# Agenda abendua

## 20 ostirala

- **Ikastetxeen kantu saioak.** Informazio gehiago, eguberrietako gehigarri berezian.
- **Urtarrilaren 30erako greba batzordea osatzeko bilera irekia.** 18:30ean Potxoenean.
- **Hitzaldia: "Berdintasuna eta generoa".** Santuenea Auzo Elkartean, 19:00etan.

## 21 larunbata

- **"Got Talent" Gaztelekuan.** Nori zuzendua: DBH 1. Informazio gehiago: 943 371050 / gaztelekua@usurbil.eus

## 22 igandea

- **Miriam Arrillaga Belokiri ongi etorria Zubietan.** 13:30ean Alamandegina.
- **Olentzero Aginagan.** 18:00etan Aginagako Sekañan.

## Herriko sormena ikusgai Sutegin

U surbildarren 2019ko sortze lan guztiak Sutegiko erakusleihoan izango dituzue ikusgai asteotan.

Musika lanetan, Natali, "Txalaparta. Artze anaiak", Iñorkiñak-en estreinako diskoa, Osto eta Ale, Joseba Tapia, Floxbin, Galerak proiektua.

Argitalpen idatzietan, Jakoba Errekondoren "111 hostoz eta orriz jantzi", "Lan-dareak lantzen" edota "Bizi Baratza"ren erdarazko itzulpena. Horrekin batera, Joan Mari Torrealdairan "De la hoguera al lápiz rojo", Yolanda Arrietaren "Ataria", Ixabel Agirresaroberen "Amona Tomaxaren abenturak", Joseba Larratxeren "Joana Maiz" eta bere beste hainbat kolaborazio lan.



2019ko uzta oparoa izan da.

Eta herritarrak partaide izan dituzten proiektuak ere badira; Berri Txarrak taldearen agur birako irudi bilduma jasotzen duen argitalpenean eskuhartu du Ibai Arrietak. Eta Garazi Lizasok eta Oidui Usabiagak "Argi-izpiak txarrantxen artean. 14 begirada kartzela feminismo-tik birpentsatzeko" argitalpenean.

## Abenduaren 21ean, "Got Talent" Gaztelekuan

Abenduaren 21ean larunbata, DBH 1eko gazteei zuzenduriko ekitaldia. "Irteeretan parte hartzeko, guraso baimenak Gaztelekuan jaso behar dira".

### Informazio gehiago, Gaztelekuan:

gaztelekua@usurbil.eus  
943 371050.

## Hitzaldia eta txistor jana Santuenean

Jon Etxabe Telleria sexologo-psikologoak "Berdintasuna eta generoa" hitzaldia eskainiko du abenduaren 20an ostirala, Santuenea Auzo Elkartean. 19:00etan hasiko da hitzaldia.

Solasaldiaren ondoren, San Tomaseko ospakizunaren baitan, txistor jana iragarri du Santuenea Elkartek.

### Datozenak

## Eguberrietan, aldaketak autobus zerbitzuetan

### UK09 (Zumaia-Donostia):

Abenduak 24, 31: azken zerbitzuak Donostiara 20:15ean, Oriora 20:45ean. Gau zerbitzua: 1:35, 2:35, 4:35 eta 5:35ean Donostiara. 2:25, 3:25, 5:25 eta 6:25an Oriora.

Abenduak 25, urtarrilak 1: goizean zerbitzu bakarra. 11:10ean Donostiara eta 12:30etan Oriora. Arratsaldeko lehen zerbitzua 18:10ean Donostiara eta 18:30etan Oriorantz.

### T6 (Usurbil-Hernani):

Abenduak 24, 31: azken zerbitzuak 20:15ean Hernanira, Hernanitik Usurbilera 19:45ean.

Abenduak 25 eta urtarrilak 1: lehen zerbitzuak 15:00etatik aurrera.

### T2 (Usurbil-ospitaleak):

Abenduak 24, 31: azken zerbitzua 20:17an Usurbildik, 19:50ean ospitaleetatik.

Abenduak 25 eta urtarrilak 1: zerbitzurik ez.

### Informazio gehiago:

lurraldebus.eus  
euskotren.eus

**Kima**  
MASAJE LEKUA

·KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA

Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

**Otar-Goxo**  
Elikagaiak

Zubiaurrenea, nº2  
☎ 943 36 55 81  
20170 Usurbil

**JUANTXO**  
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8  
☎ 943 370 008

# noaua euskararen aterpe

*Bazkideok egiten dugu posible*

Astekaria, noaua.eus, Kulturaldia, Santo Tomas azoka, Inauteri Jaia, Udajolas...

**BAZKIDE EGIN ZAITEZ!**  
**eta opari eder hau eskuratu!**



bete ezazu eta noaua!ra eraman...  
edo  
noaua.eus bidez bazkide egin zaitez



**noaua**

Bazkidetza: urtean, 40 euro.

Informazio gehiago:

NOAUA!ko bulegoan, 943 360 321 telefono zenbakian edo e-postaz [elkartea@noaua.eus](mailto:elkartea@noaua.eus) helbidetan.

Eta urtean zehar, baliatu zaitez bazkide izatearen abantailez! NOAUA!ko ekitaldietan deskontuak, sarrera zozketak...

IZENA:

ABIZENAK:

JAIOTZE DATA:

JAIOTERRIA:

N.A.N ZENBAKIA:

HELBIDEA:

HERRIA:

POSTA KODEA:

ETXEKO TELEFONOA:

MUGIKORRA:

POSTA ELEKTRONIKOA:

K/K ZENBAKIA:

Usurbilgo Noaua! kultur elkarteko bazkide izan nahi dut eta nire kontutik bazkidetza kuotaren helbideraketa (40€) baimentzen dut.

Usurbilen, ko ren an

Sinadura:

